

Kontzeju

www.ñati.ous



Ñati.ous



@ñati.ous



ñati.ous



ñati.ous

DELIK

Oñatiko Udal aldizkaria | 2015eko iraia | 253. zenbakia

A las 4 y media

GRANDES COMBATES DE BOXEO

en los que intervendrán los famosos pugiles oñatarras AZKABIDE, GURIDI y MADINA que lucharán con boxeadores de gran renombre. Los detalles de esta gran velada boxística se anunciarán en programas especiales.

Gran Revancha

Julían Elorza

CONTRA

Moisés Fernández

PESOS LIGEROS

TERCERO

El fortísimo

FRUNES

La impresionante

laquista Oñatarras

CONTRA

Juan Martín González

PESOS LIGEROS

Fidel Azkabide

Boxeo a Oñatin

>>> Gerra aurreko urteetan
Boxing Klubaregon zen Oñatin

Boxeoa Oñatin

Gerra aurreko urteetan
Boxing Kluba egon zen Oñatin



1965ean pilotalekuan jokatu zen boxeoa borrokaldiko irudia (Udal Artxiboa-Jesus M^a Arzuaga funtsa)

1867an ezarri ziren Ingalaterran boxeoa modernoaren oinarriak, John Douglas, Queensberry-ko markesak idatzitako hamabi arauekin, eta berehala mundu zabalera hedatzen hasi zen britaniarrek 'arte noblea' bezala ezagutzen zuten hura, nahiz beste batzuentzat "basakeria" hutsa izan.

Espainia mailan, Bartzelonan zabaldu ziren aurreneko boxeoa klubak 1903 inguruan. Ordurako Euskal Herrian ere praktikatzen omen zen, maila apaltxoagoan.

Hain zuzen ere, Bilboko Ensantzeko zirkuan jokatu zen profesional mailako aurreneko borrokaldia estatu mailan. Non-bait, Britania Handira ikastera joandako bilbotarrek ekarri omen zuten boxeoa zaletasuna.

XX. gizaldiko lehen hamarkadarako boxeoa arrakasta handia zuen Amerikan eta Europan, klase guztietako zaleekin. Eta,

hala, 1908ko azaroan jokatu ziren Bilbon lehen konbateak, Ingalaterratik ekarritako boxeolariekin.

Handik urte batzuetara lehen euskal boxeolari profesionalak agertzen hasi ziren: Etxebarria, Montes, Mateo de la Osa, Bruno Velar, edota Paulino Uzkudun errezildarra, hiru aldiz Europako txapelduna izan zena.

Boxeolari asko eta onak atera ziren, eta Bilbon esaerako, astero antolatzen ziren gau-ekitaldiak San Frantzisko kaleko Bizkaia aretoan, Buenos Aires antzokian edota Euskalduna frontoian.

OÑATIKO BOXING-CLUB

Bilbon bakarrik ez, jakina. Beste herri askotan ere piztu zen boxeoa zaletasuna, eta Oñatin bertan ere Boxing Club-a sortu zuen, Fidel Azkabide buru zuen gazte talde batek.

Txaketua tabernaren atzeko aldean, eskailerak igota dagoen

**Arantzazu kaleko
"etxe aundi"-ko
behe-oinean
egon zen
boxing kluba
gerra zibila
lehertu arte**

lokalean, garai hartako Txantxiku Txoko elkartearen azpian, hasi omen zen boxeoa Oñatin. Gero Arantzazu kaleko 'Etxe Aundi'ko behe-oinean (Agustin Elortzaren denda eta Aterpe elkartea egon ziren lokalean) jarri zuten boxing kluba, eta bertan egon zen gerra zibila lehertu arte.

Ring-a eta boxeoa-zakuez gain, gimnasia egiteko eraztun edo *anillak* eta bizikletan ibiltzeko eskuz egindako arrabola edo *rodillo* bat ere bazeuden bertan. Boxeoa-zaleena ez ezik, herriko pilota, txirriindularitza edota atletismo zaleen topalekua izaten omen zen.

LEHENENGO BORROKALDIK

Boxeolari dagokionez, 1917koa da udal artxiboan aurkitu dugun lehen aipamena; bertan, irakur daitekeenez, herriko bi boxeolarik beraien burua eskaintzen dute jai egunetan lana egiteko; trukean,



1933 eta 1934ko
Atzeko Kaleko jai
egitarau hauetan ikus
daitekeen moduan
boxeo konbateak
antolatzen zituzten
(Udal Artxiboa)



Arantzazu kaleko 19. zenbakian egon zen Boxing Kluba. Aurretik Txaketueneko atzealdeko lokalean sortu zen boxeo taldea. Ezkerrean, Fidel Azkabide, garai hartako boxeolarietako bat.

pilota partiduetako diru-sarreraren %20 beraientzat izatea eskatzen dute.

Ondoren, 1933, 1934 eta 1935ean berdura plazan boxeo konbateak antolatzeko baimen eskaerak ere aurki daitezke, Fidel Azkabide, Antonio Guridi, Julian Elorza eta Pedro Madinak egin-dakoak.

Aspaldiko kontuak dira eta, zoritxarrez, oso gutxi dira bizirik dauden lekukoak, baina jakin badakigu borrokaldi ederrak antolaten zituztela Arrasate, Bergara, Eibar, Tolosa edo Altsasuko boxeolariren aurka. Batzuetan Oñatin, eta beste batzuetan kanpoan; tren-bete-beteta joaten omen zen Bergara edo Arrasateko jaialdiak

ikustera; beste asko, bizikletaz edo oinez.

1932 eta 1933an Gipuzkoako txapelketan parte hartu zuen Fidel Azkabidek baina ez zen aurrera iritsi. Pisu arin edo ertainetan borrokatzen zuen; oso boxeolari dotorea omen zen, baina kolpea falta zitzaion. Bestela, puntakoa izatera iritsiko zela diote ezagutu zutenek. Gerra ostean, kartzelan zela ere antolatu omen zituen borrokaldi batzuk.

Azkabiderekin batera, Julian Elorza, Anton Guridi 'Epentza', Felipe Biain, Juan Aberasturi, Pedro Madina eta Pio Ituarte ere aritzen ziren boxeoan, besteak beste.

Anton Guridi pisu astuna zen;

oso gogorra. Inguruko boxeolariak aise hartzen omen zituen mendean, eta behin alemaniar bat jarri zioten aurkari. Puntuetara galdu omen zuen. Felipe Biain 'Pirrit' ere oso ona omen zen; jenio biziko boxeolaria. Juan Aberasturi ere boxeolari arina omen zen, baina oso gogorra; kolpe asko jasota ere, ez zuten berehalakoan makurraraziko. Pio Ituarte berriz atleta bat zen, batez ere korrika nabarmentzen zena.

Ikus daitekeen moduan, beraz, Oñatin ere bizi izan zuen bere urrezko garaitxo boxeoak, nahiz eta motza izan. Zoritxarrez, gerra zibila lehertzearekin batera gazte askok herritik alde egin behar izan zuten, eta herriko

beste hainbat arlotan bezala, boxeoa ere etena etorri zen.

Gerra ostean izan omen zen boxing kluba berpiztu eta herriko gazteak boxeora erakartzeko ahalegin bat, baina ez zuen arrakastarik izan eta gutxi iraun zuen.

URTAIN OÑATIN

Boxeolaririk ez, baina boxeo zaletasunak bizirik jarraitu zuen Oñatin, antza denez, eta 1960ko hamarkadako bigarren erdian hainbat konbate antolatu ziren plazako frontoian, beheko argazkietan ikusten den moduan.

Urte haietan hasi zen ezagun egiten Jose Manuel Ibar 'Urtain', 1970ean Europako txapelduna izatera iritsi zena, eta honek ere jarraitzaile sutsuak izan zituen Oñatin. Pedro Ugarte, adibidez, boxeozale itsua zen, berak aitortu digunez, eta Madrilen egon zen Urtainek Europako pisu astunetako txapelketa irabazi zuenean *Peter Welland* alemaniarra KOz menperatuta.

Urtain bera ezagutzeko aukera ere izan zuen Pedrok, Fermin Irizar ormaiztegiarraren bitartez, eta Urtainek Donostiako Orly hotelean zeukan gimnasioan ere egon zen haren entrenamendu saioak ikusten. Donostiara ere sarri joaten ziren oñatiar boxeozaleak Urtain ikustera. "Ikusi, gutxi" dio Pedro Ugartek, "hasi orduko aurkaria aidea botatzen zuen-eta".

AZKEN BOXEO JAIALDIA

Oñatin antolatu zen azken boxeo jaialdia 1978ko maiatzean izan zen, San Migel Txiki jaietan. Luis eta Fernando Azpiazu anaiek eta Manolo Irizar zenak antolatuta.

Ekitaldiko konbate nagusian, profesional mailakoa, Benito Escriche toledarra eta Cabo Verden jaiotako Sugar Silex aritu ziren. Biak Urtainen aurka borroka egindakoak ziren aurretik. Puntuetara nagusitu zen azken hau, gerora, Irunen bizi zela, labankadaz hil zutena. Bere bi semeak goi mailako eskubaloi jokalaria izatera iritsi dira.



Jose Manuel Ibar 'Urtain' Pedro eta Antonio Ugarte anaiei autografoa sinatzen konbate baten ondoren.

URTAIN OÑATIN

Pedro Ugarte oñatiar boxeozaleak Urtain ezagutu zuen Fermin Irizar Ormaiztegiako enpresa-gizonaren bitartez, eta 1972an Oñatira gonbidatu zuen boxeolaria. Aterpe elkartean bazkaldu zuten, Carlos Etxeberriak zerbitzatuta. Gero kalejiran jeitsi ziren plazaraino, goiko argazkian ikusten den moduan. Ezkerretik hasita, Eduardo Azpiazu, Bitoriano Etxezarreta, Pedro Ugarte, Carlos Etxeberria, Antonio Ugarte, Urtain, Jose Txintxurreta, Fermin Irizar eta Urtainen lagun batzuk agiri dira argazkian (Argk.: Plazaola)



1965 eta 1969an Oñatin jokaturako konbateetako irudiak.



EZAGUTU **MONDRAGONLINGUA**ren

hitz egiteko era berriak

Era berriak garai berrietarako,
behar berrietarako,
merkatu berrietarako,
teknologia berrietarako...

4 ikaskuntza-metodo aurkezten ditugu,
forma berrietara egokituta,
zuri egokituta.

MondragonLinguarekin
klaseak
poltsikoan
sartu



Matrikula zaitez urriaren 17a baino lehen
eta **SAMSUNG GALAXY GRAND PRIME BLK NEW** bat
emango dizugu*

* Osoan gaitzak agertu arto. Mplus (euskeraz - Ingeltz) eta MLazpetan beste eraketa autorentzati.
Promozioa hainbat zati banatuta dago.

Informa zaitez zure
MondragonLingua zentroan
Motxon kalea 7, **Oñati**. Tel. 943 71 60 00

CREATIVITY
IRASTERE METODO NATURALA



ml kids

TITULAZIO-RAKOBIDERIK ZIURENA

CERTIFICATION



ml certification

FLEXIBILITY
MAGUIASUNA ETUTORIZAZIOA



ml adapta

**ENGLISH, EUSKARA,
FRANÇAIS, DEUTSCH**
METODO-RAKOBIDERIK ZIURENA



ml+ ml plus



Cambridge
Exam Preparation
Centre



Etengabeko berruntza eta
hazkuntza berruntzen ditugu
"Kalitatearen Urrezko Q"
duen munduko hizkuntza-
zentro bakarra gara



Europako zigilua
atzerriko hizkuntzen
irakaskuntzan eta
ikaskuntzan
berrietasunetik.



MONDRAGON taldeko
korporatibo bat gara,
eta irakaskuntza dugun
zerbitzuaren % 100koa
konsumatzaileak duguk.



MONDRAGON
UNIBERTSITATEAK
MondragonLinguaren
irakaskuntza ikasketak
gumendatzen ditu.

% 91

Ikasleek onartzen dira
gure berruntze onak,
% 91k baino gehiagok
Cambridgeko atzerriko
ofizialak gaitzen ditu.

**matrikula
zabalik**

Hastabaren hasiera: **Irailak 14**

mondragonLingua

Arantzazuko aterpetxea egokitze lanak azken txanpan sartu dira

Barruko eraikuntza lanak amaituta, altzariz hornitzea bakarrik falta da. Urte amaierarako prest egongo da.



Gandiaga topagunean dago aterpetxea, parketxearen aurreko eraikinean.

Udazkenean zehar (urte amaierarako beranduen) prest egongo da Arantzazu Gaur Fundazioa (Frantziskotarrak, Gipuzkoako Foru Aldundia, Oñatiko Udala, Kutxa eta MCC) Gandiaga Topagunean prestatzen ari den aterpetxea.

Otsaila bukaeran hasi ziren obrak eta, dagoeneko, amaituta daude barne eraikuntza lanak. Orain, altzariz hornitzea eta kudeaketa eredu erabaki eta finkatzea falta da.

Arantzazuko berritze proiektua zuzendu zuen Miguel Angel Alonso arkitektoak (*Alonso, Hernández & Asociados*) idatzi du aterpetxearen proiektua. Ondoko orriko planoan ikusten den moduan 56 lagunentzako edukiera izango du eta, batez ere, ikasle nahiz gazte taldeei eta erromesei eman nahi die zerbitzua, datozen urteetan indar handia hartuko baitu Arantzazutik pasatzen den Inaziotar Bideak; Gogoratu 2022an beteko dela Loiolako Inaziok jaiotetxetik Manresaraino egin zuen erromesaldiaren 500. urteurrena.

Aterpetxeak hotel kontzeptutik aldendu nahi du eta oinarritzko zerbitzua eskainiko du: lo-lekua eta gosaria. Arantzazuk eta Oñatik dituzten turismo eta natur baliabideen sustapenean eragile izan nahi du.

Oñatiko Ugarte eraikuntza enpresak egin ditu orain arteko lanak.



Goian, jangela-egongela hartuko duen eremua; ezkerrean, letogetako bat.

AGURTZANE
ileapaindegia

Ondo pasau jaiketan!!

Euskadi Etorbidea 8 • Tel.: 943 53 45 44


Almaraz
inmobiliari gestioa

Tel.: 679411444

www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz

"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilini bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu".



56 lagunentzako aterpetxea

Arantzazuko aterpetxeak 500m²-ko azalera izango du (407m² erabilgarri) eta 56 lagunentzako edukiera. Goiko planoan ikus daitekeen moduan, sei logela izango ditu: 12 oheko lau, eta 4 oheko bi; denak literadunak. Bestalde, gizonezko eta emakumezkoentzako bainu-gela bana egongo da (hiruna dutxa eta komunekin), eta mugikortasun urria dutenentzako beste bainu-gela txikiago bat ere bai. Erropak garbitu eta lisatzeko gela txiki bat ere egongo da komunen ondoan.

Horiez gain, 105 m²-ko jangela-egongela, 29m²-ko erabilera anitzeko gela bat, eta 27m²ko sukaldea izango ditu aterpetxeak. Lo egiteko lekua eta gosari zerbitzua eskainiko ditu, baina ez jatetxe zerbitzurik. Aterpetxeak bezeroek bertako sukaldea erabiltzeko aukera izango dute, baina jatetxe zerbitzua nahi duenek Arantzazuko ostatu ezberdinak izango ditu aukeran.

Aterpetxea Gandiaga topaguneko pilotalekuen gainean dago (bertatik izango du sarrera) eta, beraz, bertako erabiltzaileek pilotalekuak, jolas parkea eta sarrerako estalitako gunea erabili ahal izago dute.

Hotel eredutik alde egin nahi du aterpetxeak. Lo egiteko lekua eta gosaria bakarrik eskainiko ditu. Ohe guztiak literadunak izango dira.

ARKAZU ZURE EBXEA DA.

GRUPO ARKAZU

ARETXABAILETA 1950 - 2015 ARRASATE

65 urte

Lezesarri eta Garibaiko trafiko arazoak aztertuko ditu Udalak Aldundiarekin

Lezesarri auzoko irisgarritasuna hobetzeko aurreproiektua prestatu du udalak

Aspaldikoa da Lezesarri auzoko bizilagunen kezka trafikoa dela-eta. Herrigunearekin lotzen duen oinezko ibilbiderik ez dutenez, errepidera irten behar izaten dute, eta Arantzazutik behera ibilgailuak abiadura handian etortzen direnez, arriskua areagotu egiten da.

Lezesarriko auzotarrei ez ezik Azkoagaineko erabiltzaileei ere eragiten die arazoak. Futbol zelaiaren inguruan aparkalekuri ez egoteak ere makina bat buruhauste eta arrisku egoera sortzen ditu.

Arazo horiei irtenbidea eman asmoz, Udalak aurreproiektu bat prestatu du Lezesarriko irisgarritasuna hobetu eta trafikoa baretzeko helburuarekin. Sestra Ingeniaritza eta Arkitektura bulegoak idatzi duen aurreproiektuak hiru aktuazio nagusi jasotzen ditu.

BIRIBILGUNEA ETA OINEZKOEN IBIBILIDEA

Beheko planoan ikusten den moduan, biribilgune bat egitea proposatzen da, Arantzazuko errepidea eta Oñatiko saihesbidearen arteko bidegurutzean.

Bestetik, bi metroko zabalera-ko espaloia egingo litzateke biribilgunetik Artzaiaren monumenturaino (400 metro). Zati batean Arantzazuko errepidearen ezkerreko aldetik joango litzateke espaloia, eta gero esku-matik. Alde batetik bestera pasatzeko, altxatutako zebra-bide bat egokituko litzateke, trafikoaren abiadura murrizteko.

Biribilgunea, oinezkoen bidea eta 60 autorentzako aparkalekua egitea jasotzen du aurreproiektuak

Saihesbideko tarte batean ere (Biribilgunetik eta Jaumendira-ko bidegurutzea artean) oinezkoentzako ibilbidea egokituko litzateke (137 metro).

Azkoagain ondoko lursailean 60 autorentzako aparkalekua egiteko aukera ere jasotzen du aurreproiektuak.

Bi errepide hauek Foru Aldundiarenak direnez, Udalak errepide saileko zuzendaritzarekin bilera bat egitea eskatu du proposatzen diren irtenbideak aztertzeko. Guztira 520 mila euroko aurrekontua du aurreproiektuak.

Bilera horretan Garibai auzoko trafiko arazoa ere aztertuko dute. Bertako auzotarrak kexu dira autoek gehiegizko abiaduran ibiltzen direlako, bazterbidea oso estua delako, eta industria nahiz baserrietarako sarbideak daudelako. Egutero 10.000tik gora ibilgailu pasatzen dira bertatik, eta neurriak eskatzen dituzte segurtasuna bermatzeko.



Lazarragako lorategiak erabilera publikoa izaten jarraituko du

Lorategiaren jabeak eta Udalak lagapen hitzarmena luzatu dute agintaldia amaitu arte

Carlos Martinez de Irujo jaunak, Lazarragako jauregiaren jabeak, eta Mikel Biain alkateak hitzartu duten lagapen kontratuari esker, herritarrok bertako lorategiaz gozatzen jarraitu ahal izango dugu beste lau urtez, agintaldi honen amaierararte.

2012ko irailean adostu zuten Udalak eta Sotomayorreko dukeak Lazarragako lorategia herriari zabaltzea, eta lehen hiru urte hauetako esperientzia positiboki baloratu ondoren, lagapen hitzarmena luzatzea erabaki dute.

ERABILERA DESEGOKIAK

Lehen hiru urte hauetako balorazioa positiboa izan da, oro har, baina, hala ere, jokabide desgoki batzuk ere antzeman dira (landara eta setoak erauzi, harriak zelaira eta ur putzura bota...) eta horrek kezka eragin du jabeengan. Beraz, halako jokabide eta praktika txarrak ekiditea eskatzen du Udalak, bestelako neurririk hartu beharrik ez



4000 m²-ko azalera du Lazarragako lorategiak



Mikel Biain alkatea eta Carlos Martinez de Irujo, Sotomayorreko dukea, hitzarmena sinatzen

izateko. Ildo horretan, gogoratu, debekatuta dagoela parke barruan futboleko jolastea, bizikleta, patinete edo antzekoetan ibiltzea, edota animaliak bertan sartzea.

UZTAILEAN ETA ABUZTUAN ITXITA

Hitzarmenaren arabera, Martinez de Irujo jaunak doan lagatzen dio Udalarari 4.000m²-ko lorategiaren erabilera. Trukean, Udalak bere gain hartzen ditu mantentze lanak eta erabiltzaileek parkean eragin ditzaketen kalteen gaineko erantzukizuna.

Parkea goizeko 9:00etan zabalduko dute egunero herritarrentzat, eta itxiera ordua urte sasoiaren arabera izango da: urriaren 15etik apirriaren 15era arratsaldeko 17:00etan, eta gainerakoan 20:00etan.

Uztailean eta abuztuan lorategia itxita egongo da herritarrentzat, orain arte bezala; hilabete horietan bertako jabeek baino ezingo dute erabili.



ELKAR HEZI-ko HAURTZAINDEGIA

MATRIKULAZIOA IRAILEAN ZABALIK

Haurtzaindegia / HH/ LH/ DBH/Batxi
Bakarkako bisitak edota informazioa eskatzeko:
943 71 82 72 / www.elkarhezi.eus/  





Etorkinen integrazioa errazteko HARRERA PROTOKOLOA



Oñatin erroldatzen diren jatorri ezberdineko pertsonei herrian integratzen laguntzeko Harrera Protokoloa prestatzen ari da Udala

Azken datuen arabera herrian erroldatuta dauden 11.300 biztanleetatik 446 (%4,9) Euskal Herritik kanpora jaiotakoak dira. Eta beste datu esanguratsu bat ere bai: azken sei urteetan bikoiztu egin da errolda berrien kopurua; 2009an Oñatitik kanpora jaiotakoen 46 errolda berri jaso ziren, eta 2014an 112 (bataz beste 9 errolda berri hileko).

Bistan dago, beraz, arrazoi bategatik edo bestegatik migrazio mugimenduak goraka doazela; gure gizartea gero eta anitzagoa dela, eta errealtate berri eta aldakor hori ahalik eta egokien kudeatu beharra dagoela, aniztasun horrek bere baitan duen aberastasunaz baliatu ahal izateko.

Helburu horrekin sortu zen aurreko agintaldian, 'Udalanitz Sarea' diputazioaren ekimenez, herrialdeko udal ezberdinekin (tartean Oñati) elkarlanean, eta prozesu horren baitan sumatu zen hutsune handia zegoela Debagoiena eskualdean gai honen inguruan. Beharrezkoa ikusi zen

DATUAK

Oñatin gaur egun erroldatuta dauden 11.300 bizilagunetatik **446** (%4,9) Euskal Herritik kanpora jaiotakoak dira: **Amerikan** 189, **Europan** 136, **Afrikan** 66 eta **Asian** 55.

ERROLDA BERRIAK: 2014an Oñatitik kanpora jaiotakoen **112** errolda berri jaso ziren, Oñatin, bataz beste **9** errolda berri hileko.

Harrera Protokolo bat sortzea, aniztasun hori gestionatzeko lehen pausu bezala, eta zeregin horretarako kontratatu zituzten Tamara Pérez eta Deiene Bidaurreta teknikariak.

Sei hilabetez jardun dute Debagoieneko herrientzako

Harrera Protokoloa lantzen (herri bakoitzeko berezitasunak kontuan hartuz) tokian tokiko agintariekin, udaleko sail ezberdinetako teknikariekin eta gizarte eragile ezberdinekin elkarlanean.

Oñatiko Udalaren interesa eta inplikazioa handia izan da lehenengo momentutik. Mikel Biain alkateak eta Nerea Zubia Partaidetza batzordeko buruak hartu dute gaiaren ardura eta udaleko teknikari gehienek ere parte hartu dute prozesuan, aniztasunaren gaiaren inguruan sentsibilizatu eta gai hau zeharkakotasunez lantzeko eta estrategiak definitzeko helburuarekin.

ONGIETORRI BILERAK

Datozen egunetan aurkeztuko dituzte Oñatirako prestatu duten Harrera Protokoloaren xehetasunak, baina aurreratu dezakegu 'Ongietorri Bilerak' egiteko asmoa dutela hiru edo lau hilabetearen behin.

Denbora tarte horretan Oñatin

ONGIETORRI BILERAK

Hiru edo lau hilean behin 'Ongietorri Bilerak' antolatuko dira, denbora tarte horretan Oñatin erroldatu diren pertsona guztiei zuzenduta

erroldatzen diren pertsona guztiei luzatuko zaie Ongietorri bileretan parte hartzeko gonbitea, Deienek eta Tamarak azaldu digutenez; “Oñatin ongi etorriak direla esateaz gain, herriari eta bertan aurkituko dituzten zerbitzu eta dinamika ezberdinei buruzko informazioa eskainiko zaie. Helburua da, senti dezatela ongietorriak direla herri honetan eta, datozen lekutik datozela, lehen momentutik sujeto aktibo izaera aitortzea, eta herrian integratzeko behar duten informazioa (osasun arloan, kirolean, kulturean, hezkuntzan...) eta bitartekoak eskura jartzea”.

Euskarari ere garrantzia eman-go zaio lehen momentutik, jakin dezaten Oñati herri euskalduna dela, hemen badela beste hizkuntza ofizial bat eta oñatiarrok garrantzia ematen diogula euskarari.

Ongietorri bilerak udaletxean egingo dira, administrazioarekiko barrera psikologikoa gainditzen laguntzeko, eta alkateak edo honen ordezkioak zuzenduko ditu. “Garrantzitsua izango da, gure ustez, emakumezko zinegotzi edo arduradun politiko baten presentzia ere bermatzea bilera hauetan, berdintasunaren gaiari garrantzia emateko” gaineratu dute teknikariek.

GIZARTE ERAGILEEN GARRANTZIA

Aniztasunaren kudeaketaren ardura Udalarena da, baina ez da nahikoa. Herriko kultur, kirol, gizarte eta beste arlo batzuetako eragileen parte hartzeak berebiziko garrantzia du, harrera egiteko eremu naturala herria baita. Horregatik, Oñatiko eragile



Deiene
Bidaurreta eta
Tamara Perezek
landu dute
Harrera
Protokoloa

HELBURUA

“Harrera Protokoloaren helburua da Oñatira bizitzera datozen pertsonak, datozen lekutik datozela, ongi etorriak direla sentitzea, lehen momentutik sujeto aktibo izaera aitortzea eta integratzen laguntzea”



**ANIZTASUNAREN
KUDEAKETAREN
ARDURA
UDALARENA DA,
BAINA GIZARTE
ERAGILEEN
PARTE
HARTZEAK
BEREBIZIKO
GARRANTZIA DU
INTEGRAZIOA
ERRAZTEKO**

ezberdinekin ere bildu dira Tamarra eta Deiene, sentsibilizazio saioak egiteko, aniztasunaren gaia nola lantzen duten ezagutzeko, eta beharrian edo hutsuneei irtenbidea ematen ahalegintzeko.

Azken batean, harrera egitea prozesu bat da; ez da mugatzen lehenengo bilerako kontaktura bakarrik. Oñatira bizitzera etortzen den pertsonak bizi beharreko prozesu pertsonal bat da, eta bide horretan, Udalaz gain, herriko eragile eta herritarrek izuga-

rizko garrantzia dute. “Herrian dugun jatorri aniztasunak bere baitan duen aberastasunaz jabetu behar dugu. Ez dugu beldurrik eduki behar ondokoa ezagutzeko eta harremanak sortzeko; aniztasunak gauza positibo asko eman ahal dizkigu. Beraz, animatu egin nahi ditugu oñatiarrak harreman horiek sortzera, elkarri aitortza ematera eta bizikidetzara sano eta aberasgarria sustatzera” azaldu digute Tamarak eta Deienek.

italde

TALDE ERAIKITZAILE • SUSTATZAILEA

ETXEBIZITZETAN ALKERARIK HANDIENA

- San Martinen
- Kurtzekuan
- Kasablankan

PREZIO BEREZIAKI!

* mtoz jeltzaritza

Ramón Irizar kalea 2 • OÑATI • Tel. 943 782 707 • www.italde.com

Agintaldi berria abian da

Uztailaren 2an eman zitzaion hasiera ofizialki agintaldi berriari, Tokiko Gobernu Taldea eta Lan Batzorde edo batzorde informatzaileak eratzearekin batera.



UDALAREN EGITURAKETA

LAN BATZORDEAK

Astean behin edo hamabostean behin elkartu ohi dira batzorde informatiboak, bakoitzan daukan lan kargaren arabera. Talde politiko guztietako ordezkariak parte hartzen dute, eta botoa ponderatua edo proportziozkoa izaten da, hau da, EH Bilduk 10 eta EAJk 7. Batzorde informatibo bakoitzean egiten diren proposamenak asteroko Tokiko Gobernu Batzordera joaten dira, eta hemen onartzen edo baztertzen dira. Batzorde hauek irekiak izaten dira eta, beraz, herritarrek ere parte har dezakete interes orokorreko gaiak jorratzen direnean.



TOKIKO GOBERNUA

EH Bilduko zerrendako aurreneko bost zinegotziek (Mikel Biain, Irati Etxeberria, Borja Moiua, Nerea Zubia eta Kepa Zelaia) osatzen dute Tokiko Gobernu. EH Bilduko gainerako bost kideek ere parte hartzen dute, ordezkoko gisa. Ostegunero biltzen da Tokiko Gobernu Batzarra, eta bertan onartzen dira, edo baztertzen, Batzorde Informatiboetatik iristen diren proposamenak. Bertan erabakitzen dira gai guztiak, legez osoko bilkurara eraman beharrekoak izan ezik. Bilera itxiak dira.



OSOKO BILKURA

Hileko azken ostegunetan egiten da Osoko Bilkura edo plenoa. Ordezkaritza duten talde politikoetako zinegotzi guztiek parte hartzen dute. Udalaren ondasunak, lan-taldea edota, besteak beste, zergak eta aurrekontuekin zerikusia duten gaiak aztertu eta erabakitzen dira bertan. Baita mozioak ere. Batzar hauek irekiak dira eta, bukaeran, herritarrek ere har dezakete hitza, alkatearen baimenarekin.

Partaidetza

Ingurumena eta Landa Garapena

Hirigintza eta Zerbitzuak

Pertsonala eta Barne Antolamendua

Berdintasuna

Kirola

Kultura

Haurrak eta Gazteria

Ongizatea (Gizarte Zerbitzuak)

Ogasuna (Hazienda)

Euskara eta Hezkuntza

Sozioekonomia

PARTAIDETZA



Batzordeburua

Batzordekideak:

- NEREA ZUBIA (EH Bildu)
- IRATI ETXEBERRIA (EH Bildu)
- MIREN ELGARRESTA (EAJ)

INGURUMENA ETA LANDA GARAPENA



Batzordeburua

Batzordekideak:

- OIER IRIZAR (EH Bildu)
- MIKEL BIAIN (EH Bildu)
- MIREN ELGARRESTA (EAJ)

HIRIGINTZA ETA ZERBITZUAK



Batzordeburua

Batzordekideak:

- IRATI ETXEBERRIA (EH Bildu)
- RAFA KORTABARRIA (EH Bildu)
- MIKEL BIAIN (EH Bildu)
- LURDES IDOIAGA (EAJ)
- JON KEPA GERRIKAGOITIA (EAJ)

PERTSONALA/BARNE ANTOLAMENDUA



Batzordeburua

Batzordekideak:

- MIKEL BIAIN (EH Bildu)
- SUSANA ALTUNA (EH Bildu)
- NEREA ZUBIA (EH Bildu)
- LURDES IDOIAGA (EAJ)

BERDINTASUNA



Batzordeburua

Batzordekideak:

- LEIRE ZUMALDE (EH Bildu)
- NEREA ZUBIA (EH Bildu)
- MARIJO ETXEGOIEN (EAJ)

KIROLA



Batzordeburua

Batzordekideak:

- BORJA MOIUA (EH Bildu)
- KEPA ZELAIA (EH Bildu)
- ANA MARTIN (EH Bildu)
- RITXAR FERNANDEZ (EAJ)
- JABI BALZATEGI (EAJ)

KULTURA



Batzordeburua

Batzordekideak:

- NEREA ZUBIA (EH Bildu)
- LEIRE ZUMALDE (EH Bildu)
- AMAIA EROSTARBE (EAJ)

HAUR ETA GAZTERIA



Batzordeburua

Batzordekideak:

- KEPA ZELAIA (EH Bildu)
- NEREA ZUBIA (EH Bildu)
- MARIJO ETXEGOIEN (EAJ)
- RITXAR FERNANDEZ (EAJ)

ONGIZATE ZERBITZUAK



Batzordeburua

Batzordekideak:

- SUSANA ALTUNA (EH Bildu)
- MIKEL BIAIN (EH Bildu)
- RAFA KORTABARRIA (EH Bildu)
- LURDES IDOIAGA (EAJ)
- MARIJO ETXEGOIEN (EAJ)

OGASUNA (Hazienda)



Batzordeburua

Batzordekideak:

- RAFA KORTABARRIA (EH Bildu)
- MIKEL BIAIN (EH Bildu)
- IRATI ETXEBERRIA (EH Bildu)
- MIREN ELGARRESTA (EAJ)
- LURDES IDOIAGA (EAJ)

EUSKARA ETA HEZKUNTZA



Batzordeburua

Batzordekideak:

- NEREA ZUBIA (EH Bildu)
- BORJA MOIUA (EH Bildu)
- AMAIA EROSTARBE (EAJ)

SOZIOEKONOMIA



Batzordeburua

Batzordekideak:

- ANA MARTIN (EH Bildu)
- MIKEL BIAIN (EH Bildu)
- MIREN ELGARRESTA (EAJ)
- JON KEPA GERRIKAGOITIA (EAJ)

Zinegotzi eta talde politikoen ordainsariak

Hauek dira udaletxean ordezkaturak dauden alderdi politikoen jasoko dituzten ordainsariak.

► ZATI FINKOA

Talde politiko bakoitzak 48,30€/hileko

► ZATI ALDAKORRA

Zinegotzi bakoitzeko 356,83 euro/hileko. Batzordeburuak direnen kasuan 673,04 euro/hileko (liberaturak dauden zinegotziek izan ezik).

BI LIBERATU

Mikel Biain alkatea eta Nerea Zubia alkateordea egongo dira liberaturak udaletxean egun osoko jardunarekin. Biek ala biek, gaur egun beraien lanetan duten soldata berbera jasoko dute (49.961 eta 35.216 hurrenez hurren, urteko soldata gordina).

ALKATEORDEAK

Nerea Zubia, Irati Etxeberria, Borja Moiua, Kepa Zelaia eta Ana Martín izango dira Mikel Biainen ordezkariak.

UDAL ORDEZKARIAK MANKOMUNITATEAN

EH Bilduko Irati Etxeberria, Nerea Zubia eta Mikel Biain izango dira Oñatiko ordezkariak mankomunitatean.

San Martingo autokarabanentzako guneko erabilera araudia onartu du Udalak

> 18 ibilgailuentzako aparkalekua dago bertan eta ur hartunea ere badu



Laister komun publikoa ere jarriko dute autokarabanentzako zerbitzugunean

Ordenantzaren jasotako arauak ez betetzeak ekar ditzakeen zigorrak, 30 eta 200 euro arteko isunekin.

ZAINDU GABEKO GUNEA

Autokarabanentzako aparkalekua ez da zainduta egongo. Horrenbestez, Udalak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik gunean aparkatutako ibilgailuetan gerta litezkeen lapurreta eta antzekoengatik.

Udalak behin behineko izaeraz onartu duen ordenantza hau jende agirian egongo da 30 egunez (irailaren 10erarte) alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Hemezortzi autokarabanentzako aparkalekuarekin San Martinen egokitu duen zerbitzugunearen erabilera arautuko duen ordenantza onartu zuen Udalak uztaileko osoko bilkuran.

Turismoa sustatzeko asmoz prestatutako gunea dela kontuan hartuz, aparkaldiak mugatuak izango dira, txandakatze-aldiak bermatzeko; hala, asteen, gehienez hiru gauez (jarraituak edo jarraitu gabeak) erabili ahal izango da aparkalekua. Aparkaldiko gehieneko denbora gairatzeak dagokion zigorra ekarriko du, eta ibilgailua erretiratzea ere ekarriko du, baimen berezia eduki ezean.

Zerbitzugune hau autokarabana bezala kalifikatutako ibilgailuek bakarrik erabili ahal izango dute; hau da, bizitoki-ibilgailu gisa homologatutakoak, ur-andela eta komuna dutenak.

Aparkalekuak ur-azpiegitura ere badu; erabiltzaileek ura hartu edo ur zikinak bertan hustutzeko aukera izango dute. Zerbitzugunea erabili ondoren egoera higieniko onetan utzi beharko dute.

KOTXEAK GARBITZEA DEBEKATUTA

Debekatuta dago gunea hau ibilgailuak garbitzeko erabiltzea, eta kanpaldi librean egitea ere debekatuta dago aparkalekuan bertan edo inguruetan.

APARKALDI MUGATUAK

Turismoari begira prestatutako gunea da eta, beraz, txandakatze-aldiak bermatzeko asmoz gehieneko aparkaldia finkatu da: hiru gau, asteko.

Piknik-gunea ere prest, parkinaren ondoan



Komun publikoa ere jarriko dute laister bertan, autokarabanen zerbitzuguneari ez ezik, inguru horretan pasioan ibiltzen diren herritarrei ere zerbitzua emateko

Autokarabanentzako zerbitzugunea eta San Martín zuhaitziaren artean piknik-gunea ere egokitu du Udalak. Lau eremutan banatuta dago gunea, bina mahai eta eserlekurekin. Horiez gain, bosgarren gunea bat ere badago, topaleku gisakoa, iturria eta jarlekuekin, San Martín hariztiaren sarreran. Piknik-gunea hau edozein herritarrek erabili ahal izango du. Udalak ez du parrilla edo barbakoa gunerik jarriko bertan, baina norberak eraman ahal izango du berea. Laister, komun publikoa jarriko dute bertan, aparkalekuari eta paseatzaileei zerbitzua emateko.

'Ontziratu zaitez' kanpaina abian da Oñatin

Arraina eta haragia erosterakoan ontzien erabilera sustatu nahi da, plastikoa eta papera murriztuz



Abendura arte 30€-ko erosketa bonoak zozkatuko dituzte hilero, kanpainarekin bat egin duten saltokietan

Kutxa Ekogunea eta Udalaren eskutik abian da 'Ontziratu zaitez' ekimena Oñatin. Arraina eta haragia erosten ditugunean *tupper* edo ontzi berrerabilgarrien erabilera sustatzea da kanpainaren helburua, plastikoa eta paper bilgarriak baztertuz. Hala, hondakinak murrizteaz gain, erosotasunean ere irabaziko dugu, ontzia zuzen zuzenean dendatik hozkailura sartu ahal izango dugulako.

Horretarako, 1.500 ontzi ekologiko berrerabilgarri banatu zituzten uztailako bigarren erdian, kanpainarekin bat egin duten herriko zazpi establezimenduetan (Fernandez eta Kresala arrandegiak, Antton, Garai eta Txantxiku harategiak, eta BM eta Eroski supermerkatuak).

ZOZKETA HILERO

Banaketa egin ondoren, herritarrak ontziak erabiltzen ohitzea da orain helburua. Horretan laguntzeko 30€-ko erosketa bono bana zozkatuko da hilero (abendura arte) kanpainarekin bat egin duten saltokietan, denda horretan bertan gastatzeko.

Kutxa Ekoguneak eta Udalak eskerrak eman dizkiete kanpainarekin bat egin duten harategi eta arrandegiei, eta animatu egin nahi dituzte herritarrak ontziak erabiltzera. Keinu txiki bat da, baina jende askok egiten badu, inpaktu edo eragin positibo handia lor daiteke.

Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak atzera bota du EAJk udalaren aurka jarritako helegitea, San Martin guneko Plan Partzialaren inguruan

EH Bilduren udal gobernu taldeak San Martin guneko Plan Partziala aldatzea erabai zuen iazko uztailan, eta urtebete ondoren, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak atzera bota du EAJren udal taldeak erabaki horren aurka tartejarritako helegitea.

Gogoratu, Plan Partzialaren aldaketaren bidez, Udalak eta bertako eraikuntza enpresek hitzartu zutela San Martinen eraikitzeko falta ziren 83 etxebizitza libreen ordez 132 eraiki ahal izatea (49 gehiago), baina etxeen azalera murriztuz (146m²-tik 98m²-ra, bataz beste), eta horrenbestez, hasierako Plan Partzialean jasotako eraikigarritasun osoa aldatu barik.

Trukean, udalak eta enpresek adostu zuten 132 etxebizitza horiek prezio mugatukoak edo tasa-tuak izatea, eta urbanizazio lanak amaitzeko epeak finkatzea, besteak beste.

EAJren HELEGITEA

EAJren udal taldeak erabaki horrekiko ezadostasuna agertu zuen. Jeltzaleen ustez, San Martinen eraikiko diren 49 etxebizitza gehigarri horien %65 (32 etxebizitza) babes ofizialekoak izan beharko lirakeke, 17/1994 Legeak ezartzen duen estandarra aplikatuz.

Bestalde, EH Bilduk esaten zuen San Martingo eraikigarritasuna aldatzen ez zenez, ez zela babes ofizialeko etxebizitzaren estandarra aplikatu behar.

Ika-mika luzea eragin zuen gai honek udal gobernu eta oposizioaren artean iazko udaberrian. Ados jartzen ez zirenez, EAJk auzitara jotzea erabaki zuen, EH Bilduk hartutako erabakia baliogabetzea eskatuz. Baina, esan bezala, pasa den uztailaren 14an auzitegiak emandako epaiak arrazoia eman dio udal gobernu taldeari EAJren helegitea desestimatuz.



EZKONTZETAN

2015-2016 urteetan

Informazio gehiago,

Tel. 943 78 19 56

www.etxeaundi.com

Uste-Aundi



Hondakinak dagokien egunean atera



Ez utzi hondakinik lurrian



Hustutako ontziak egunean batu

Hondakinak ongi sailkatu



Hondakinak edukiontzi barruan atera, papera eta kartoiak talestutako edukiontzi gainean edo sokarekin lotu

Traste zaharren bilketa eguna errespetatu (osteguna)

Haututako ontziak bulegoan aldatzen dira

> Ohitura zaharrak zuzentzen

Azken aldian, herritarren aldetik zenbait ohitura desegoki areagotu direla eta, ohartarazpen batzuk egin nahi ditugu, ohitura horiek zuzendu alde. Batetik, ontzi hutsak batzeko **ordutegia** eta hondakinak ateratzeko **egutegia** errespetatzea eskatzen da, udako egunetan bereziki horrek ekar ditzakeen arazoak ekiditeko. Kaleak garbi mantentzea guztion ardura da.

Bestetik, **papera** eta **kartoiaren** kasuan, euria edo haizea egiten duenean, edukiontzietatik kanpo utzitako kartoiak arazo izan daitezkeela gogorarazi nahi dugu. Azkenik, ostegun gauetako **Traste Zaharren** zerbitzua egoki erabiltzeko eta oportetara goazenean **Larrialdi Guneak** erabiltzera animatu nahiko genituzke herritarrek.

ANE MERTZERIA

- Joatako zurez
- Lantzeria
- Urteko jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

LABURRUST

TABERNA • JATETXEA

Bidebarrieta 6
Tel: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR

INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA

Mugikortasun astean

Oñatiko ikasleak mugikortasun hobe baten alde

Mugikortasun Jasangarriaren Europako astea ospatuko da irailean. Aste honek urtero mugikortasun modu jasangarriak sustatzeko sentsibilizazio ekintzak barneratzen ditu, eta aurtengo leloa **"Aukeratu. Aldatu. Konbinatu"** da: mugitzeko erabiltzen ditugun erak hobeto pentsatzearen garrantzia azpimarratu nahi da, kasu bakoitzean garraibide egokienak eta jasangarrienak erabiliz eta konbinatuz.

2014-2015 ikasturtean, **Eskolako Bidea** proiektuan izan dira Txantxiku ikastola, Elkar Hezi eskola eta Urgain eskola. Udalarekin elkarlanean bultzatutako proiektu honek haurtzaroen eta gaztaroen mugikortasun ohitura **autonomoak, aktiboak** eta **seguruak** sustatzea du helburu. Partaidetza prozesu baten bidez ikastetxeen inguruan bide segurtasuna bermatzeko dauden arazoak identifikatu dira eta eskolarako joan-etorri hauek modu autonomoan eta aktiboan egitearen garrantziaz hausnartu da.

Hausnarketa hauen ondorioz, irailean Mugikortasun Jasangarriaren Europako astea ospatzen dela eta, era bateratu batean **Eskolako Bidea** proiektuan parte hartzen duten

ikastetxeek ekimen bereziak jarriko dituzte martxan, **irailaren 21etik 25era**.

Txantxiku Ikastolak eta **Elkar Hezi** ikastetxeak eskolara oinez joateko ekimenak antolatuko dituzte. Haurrak taldeka eta helduen laguntzarekin (boluntarioekin) eskolara oinez eta seguru joatean datza ekimenak. Autobus baten antzera, hainbat tokitatik hasiko diren ibilbide eta gereduak ezarriko dira. Honela, oinez ibiltzea sustatu nahi da, eta eskolarako joan-etorria autoz barik oinez eta beraien lagunekin egin nahi duten haurrei aukera hau eskaini nahi zaie.

Urgain eskolan, aldiz, sentsibilizazio kanpaina bat egingo da. Eskolako sarrera-irteera orduetan autoen gidariak sor ditzaketen egoera arriskutsuen gainean izango da kanpaina hau.

Mugikortasun jasangarri, osasuntsu eta seguru baten alde gaudela ospatzeko, aldarrikatzeko eta mugikortasun honen alde ekiteko astea izango da, proiektuan parte hartzen dugun guztiok zuek ere ekimen hauetan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu.



Aisialdiko Begirale Ikastaroa

Titulu ofiziala, Oñatin eta euskaraz

'Haur eta Gazteen Aisialdirako Begiralea' Eusko Jaurlaritzak homologatutako titulu ofiziala Oñatin bertan eta euskaraz eskuratzeko aukera eskaintzen du Udaleko Euskara-Hezkuntza sailak bigarren urtez.

204 ordu teoriko eta 120 praktika ordu ditu ikastaroak, eta larunbatetan (9:00-14:00 / 15:00-18:00) izango da, urriaren 10ean hasi eta apirilaren 23ra arte.

Parte hartu ahal izateko baldintza da adinez nagusia izatea edo 2016an 18 urte betetzea. (Praktikak egin ahal izateko ezinbestekoa da 18 urte beteta izatea).

UDALAREN DIRULAGUNTZA

Ikastaroak 500 euro balio du, baina Udalak dirulaguntzak emango ditu: langabetu eta ikas-



Hamaika gaztek egin zuten iaz Begirale ikastaroa eta balorazio oso positiboa egin dute guztiek. Interesgarria, motibagarria, oso konpletua... dira jarritako kalifikatiboetako batzuk. Urtxintza-koen esperientzia eta lan-metodologia azpimarratu dute: dinamikoa, parte hartzailea, gertukoa... Motz egin zaiela diote eta asko ikasi dutela, bai hezitzaile gisa eta baita bizitza pertsonalerako ere.

leei matrikularen %75; gainontzekoei matrikularen %50.

Dirulaguntza eskuratu ahal izateko baldintzak hauek dira: Oñatin erroldatuta egotea; %90-eko asistentzia, eta eskolen aprobetxamendu ona edo titulua eskuratzeko.

Plaza mugatuak dira eta oñatiarrek izengo dute lehentasuna, izen-emate hurrenkeraren arabera. **Irailaren 25ean** amaituko da izena emateko epea www.onati.eus webgunean.

INFORMAZIO BILERA IRAILAREN 17AN

Irailaren 17an, osteguna, (18:30) ikastaroari buruzko informazioa emateko bilera irekia egingo da Bidebarrieta 22ko Erabilera Anitzeko Gelan.

Bestela, Udaleko Euskara-Hezkuntza sailean (943780411- Iñaki Akizu / iakizu@onati.eus) eta Gaztelekuko Informazio puntuan ere eskura daiteke informazioa.



Gaztelekuko koordinatzaileak eta hezitzaileak (Iñigo Goikoetxea debarra falta da), udaleko Gazteria saileko zinegotzia (Kepa Zelaia) eta teknikariarekin (Ion Lopez) batera.

Aisialdi hezitzailea sustatu nahi du Gaztelekuak

Proposatzen zaizkien ekintzak kontsumitzera mugatu barik, gazteak ekintzen antolaketan parte hartzea eta ardurak hartzen ohitzea da aisialdi eredu berri honen oinarria

Gaztelekuak norabide berria hartu du gazteekiko hatu-emanen eta bertako dinamika antolatzeko moduari dagokionez. Martxoaz geroztik gaztelekua kudeatzen duen Zehar Heziketa Elkartek aisialdi eredu hezitzailea sustatu nahi du, eredu kontsumista alboratuz.

Laburbilduz, hau da Zehar-ek sustatu nahi duen eredu berriaren filosofia: proposatzen

zaizkien ekintzak kontsumitzera mugatu barik, gazteak beraiek parte har dezatela ekintzen anto-

“Aisialdia askoz ere aberasgarriagoa da modu honetan. Gazteak askoz ere gehiago inplikatzeko dira, gehiago bizi dute, eta erantzuna askoz hobea da”

laktantzan, proposamenak eginez eta ardurak hartuz. “Aisialdia askoz ere aberasgarriagoa da modu horretan; gazteak inplikatu egin behar dira nahi dutena lortzeko, ardura batzuk hartu behar dituzte eta, ondorioz, askoz ere gehiago bizi dute, eta erantzuna askoz hobea da” azaldu dute Jon Ormaetxea eta Iart Lete koordinatzaileek. Adibide batekin azaldu du Ormaetxeak. “Gazte talde batek esan zigun kart-etara joan nahi zuela, eta guk proposatu genien, trukean gaztetxoagoentzako bi aktibitate antolatzea; futbol eta frontenis txapelketa bana antolatu zituzten, eta oso arrakastatsuak izan ziren. Beraiek arduratu ziren kartelak egiteaz, izen-ematea antolatzeaz, egutegiaz...”.

HARREMAN EREDU BERRIA

Azken batean, gazteen eta Gaztelekuko hezitzaileen arteko hartu-emanen dago eredu berri honen oinarria. “Bilerak egiten

ditugu elkarrekin, zer egin nahi duten galdetzen diegu, eta hortik aurrera proiektu konkretuak jartzen ditugu martxan. Beraien iritzia azaldu, erabakiak hartu eta ekintzak antolatzerakoan ardurak hartzen ohitzea da helburua” azaldu dute Gaztelekuko hezitzaileek. “Gazteak, berez, prest eta irekita daude beti gauzak egitera, eta gure papera izan behar da zirikatzailea eta hezitzailea, gazteak xaxatuz, ideiak proposatuz, eta sor litezkeen arazoak konpontzen lagunduz. Elkarrekin antolatu

behar ditugu ekintzak, geuk antolatu eta beraiek kontsumitzera mugatu barik”.

ERANTZUN ONA

Gaztelekuak bi erabiltzaile talde ditu: Kubokoa (8-11 urte artekoena eta Topalekukoa (12-17 urtekoena) eta bietan aplikatzen ari dira lan dinamika berbera, eta orain arte oso erantzun ona izaten ari da gazteen aldetik.

ALTXORRAREN BILA



Topalekuko DBHko neska-mutil talde batek ginkana bat antolatu zuen Aste Santuan Kuboko erabiltzaileentzat, eta argazkian ikusten den moduan, erantzuna oso ona izan zen.

HONDARRIBIN EGUN PASA



Topalekuko DBH-3ko neska kuadrilla hau
ETBko 'Gu ta Gutarrak' saiora joan zen ikusle
bezala, eta trukean jasotako diruarekin
Hondarribira joan ziren egun pasa. Bertako
Faro de Higer kanpinean pasa zuten gaua.

Asteburu goizetan ere zabalduko dute sotoa

Datorren asteburutik aurrera, larunbat eta igande goizetan ere zabalik egongo da Gaztelekuko sotoa 0-7 urte arteko haurrei zuzendutako gunea. Goizeko 10:30etatik eguerdiko 13:00ak arte egongo da zabalik, eta arratsaldean, lehen bezala, (17:00-19:45). Asteko egunetan ere arratsaldean egoten da zabalik sotoa (17:00-19:45).



LEKEITIORA IRTEERA

Bosgarren mailako neska-mutiko talde batek Lekeitiora irteera antolatu zuen. Hondartzan ibili eta herria ikusi ondoren, betako aterpetxean egin zuten lo.



'HONTZA XTREM' ABENTURA PARKEAN

Topalekuko DBH-1eko erabiltzaileek Otxandioko abentura parkera irteera antolatu zuten, eta Udalak emandako dirulaguntzaren truke, ginkana bat antolatu zuten topalekuko gainerako erabiltzaile guztientzat.

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK

PERFORAK, LANTERNAK, LUBRIFIKATZIOAK, ARDIAK, PINTURAK, LANTERNAK...






DIAGNOSTIKAZIOA ETA MONTATZIOA

SINKILATZEA, KONKRETOA ETA ASKEZ COLORE

ISURUA 12.8 t. KOK. - 33603 64071 - 6041366

695 78 91 04 - 943 04 47 77

 **ZURICH**
M^a del Mar Urrutia Negueruela
Motxion Kalea 5 behegi
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

matrikula aldia zabalik



Bedita Larrakoetxea udal euskaltegian prest daude ikasturte berriari ekiteko. Aurtengo ere eskaintza zabala prestatu dute: Euskalduntze eta Alfabetatze maila ezberdinak, titulu ofizialak (EGA eta administrazioarako Hizkuntz Eskakizun mailak -1, 2, 3 eta 4-), lortzeko ikastaroak, aurrez aurrekoak batez ere, etorkinei zuzendutako ikastaro bereziak, Oñatiko euskara lantzekoak... Maila eta behar guztietara egokitutako eskaintza. Gogoratu, gainera, euskaltegian ikasitakoa praktikan jartzeko BERBALAGUN taldeak ere badaudela. Matrikulatzen diren ikasleen artean matrikula baten zozketa egingo da.

**UDAL
EUSKALTEGIA**

Bidebarrieta 18-

943782496

euskaltegia@onati.eus

euskaltegian



IÑIGO MURGIENDO

Iaz Aretxabaletako euskaltegian ibili nintzen, lanagatik hobeto zetorkidalako, eta aurtengo ikasturtea Oñatin egin dut. Bi helburu izan ditut: batetik, HABEren 4. mailako titulua eskuratzea, eta, horrekin batera, euskara maila hobetu eta aberastea.

Laugarren mailako titulua ateratzeko lana egin behar da. Oso interesgarria eta oso aberasgarria da, baina gogorra. Hala ere, merezi du, denbora eta gogoa izanez gero. Gainera, euskaltegian samurtasun guztiak ematen dituzte zure ordutegira moldatzeko; bestela, *online* egiteko aukera ere badago.

Euskara gure izatearen parte da, eta ez dauka mugarik. Beti egongo dira hitzak eta esamolde jatorrak ikasteko, eta euskaltegiak eskura jarritzen dizkizu horiek guztiak.



ADELA CORCOSTEGUI

Aspaldian neukan euskara hobetzeko gogoia, irakurtzeko orduan samurtasun apur bat edukitzeko, eta txukun samar idazten ikasteko. Eta orain jubilatuta nagoenez, eta gauzak lasaiago egiteko moduan nagoenez, euskara lantzen hastea erabaki dut.

Hasieran lotsa eta beldur pittin batekin joan nintzen, baina, egia esan, esperientzia oso ona izan da, benetan. Gelan oso giro jatorra izan dugu, eta pertsonalki ere oso aberasgarria izan da, jende gazteagoarekin harremana izan dudalako.

Euskara mailan ere aurrerapen handia eman dut; orain, adibidez, orrialde oso bat txukun samar idazteko gai naiz. Beraz, irakurtzeko edo idazteko zailtasunak dituen jendeari gomendatzen diot euskaltegira etortzea.



JABI BUJANDA

Otsailean hasi nintzen euskaltegian, bi helbururekin: batetik, HABEren 3. maila (EGArekin parekoa) lortzea, lan publiko guztietan eskatzen dutelako titulua; bestetik, nire euskara maila hobetzea. Hemen konturatu naiz izugarria dela gazteleraren eragina, nire kasuan behintzat.

Oso esperientzia ona izan da. Talde polita egon da, eta horrek asko laguntzen du. Askok ikasi dugu eta barre ere asko egin dugu. Eta hori ere inportantea da. Nik uste dut euskaldunok irten beharra daukagula betiko diskurtso derrotista horretatik; "oso zaila da, ez du inork hitz egiten" eta betiko diskurtso negatiboekin jarraitzen badugu, ez dugu inor animatuko ikastera. Gure txikitasunean, hala egin behar dugu aurrera, irribarre eginez euskarari

Iraupen luzeko langabetuek ez dute matrikularik ordaindu behar

**ESTHER GOMEZ**

Aspaldian neukan euskara ikasteko gogoia. Kanpotik datorren jendeak ikasten du eta ni, hemen jaioa izanik, ez naiz gai hitz egiteko. Horrek pena eta amorrua ematen dit, eta halaxe hasi nintzen iazko urrian euskaltegian.

Lehenengo kurso honeta-lehenengo esperientzia oso ona izan da, oso atsegina. Euskara ikasteaz gain, kulturalki eta pertsonalki ere aberasgarria da. Oso pozik nago.

Irakasleek asko animatzen dute, eta herritarrak ere oso eskuzabalak dira euskara ikasten ari zarela jakiten dutenean: lagunak, lankideak, dendariak... laguntzeko prest egoten dira denak, eta hori eskertzekoa da. Niri hitz egitea kostatzen zait oraindik, baina animatuko nuke jendea euskara ikastera. Oso polita eta aberasgarria da.

**ANDONI ROMANO**

Iazko irailean hasi nintzen euskaltegian. Helburua zen idazmena hobetzea, baina poliki-poliki, nire barruak gero eta gehiago eskatu dit. Bai etxean eta baita lagun artean ere gaztelaraz egiten dugu dena, eta konturatu naiz galtzen ari nintzela nire euskara. Beraz, euskara maila hobetu, praktikatuz eta gero eta hobeto mintzatzea da nire helburua. EGA agiria eskuratzen saiatu nahi dut.

Euskaltegiko esperientzia oso ona izan da. Jendea ezagutzen duzu, lagun berriak egiten dituzu, eta ondo pasatzen dugu. Eta hori ere oso inportantea da euskara ikasteko. Beraz, jendea esango nioke ez beldurtzeko eta etortzeko lasai euskaltegira; oso giro ona dago eta merezi du euskararen alde ahalegina egitea.

**ASHLEY GERMOSEN**

Dominikar Errepublikarra naiz eta orain dela bi urte iritsi nintzen Oñatira, amarekin bat egitera. Hemengo lagun guztiek euskaraz egiten dutenez arraro sentitzen nintzen, eta beraiek animatuta hasi nintzen euskaltegian iaz.

Esperientzia oso ona izan da. Euskara ikasteaz gain, beste herrialde batzuetako jendea ezagutzeko aukera izan dut, eta hauek ere asko animatu naute. Oso eroso eta gustura egon naiz.

Behin, Dominikar Errepublikan nengoela, amak "maite zaitut" esan zidan telefonoz, eta orduz geroztik jakinmina izan dut euskararekiko. Askok gustatzen zait, eta ikasten jarraitzeko asmoa dut. Animatzen dut jendea euskaltegira etortzera, oso inportantea baita bertako jendearekin komunikatzeko.

**LAURA ALDOMAR**

Valentziarra naiz eta duela urtebete iritsi nintzen hona, mutil-laguna oñatiarra da eta. Kuadrillako eta inguruko jende gehienak euskaraz hitz egiten duenez, ahalegina egin beharra daukat bertan integratzeko. Gainera, lana aurkitzeko ere ateak zabalduko dizkit euskara jakiteak.

Ikasturte osoa egin dut euskaltegian eta oso gustura nago. Poliki-poliki, baina ari naiz aurrera egiten; kaleko kartelak ulertzen ditut, elkarrekin batzuk ere bai, tabernetan euskaraz eskatzen hasi naiz...

Egia esan, euskaltegian oso eroso sentitu naiz. Irakasleak oso gertukoak dira, konfiantza ematen dizute eta etxean bezala sentitzen zara. Beraz, animatzen dut jendea euskaltegira etortzera. Nik behintzat jarraituko dut.



ESKAINTZA

- EUSKALDUNTZE eta ALFABETATZE ikastaroak: 1. , 2. , 3. eta 4. HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK (HOMOLOGATUAK)
- EGA
- IKASTARO BEREZIAK: AISA, OSTALARITZA...
- OÑATIKO EUSKARA
- EKINTZA OSAGARRIAK

AZTERKETA OFIZIALAK MAIATZEAN ETA IRAILEAN

Eskaerari egokitutako erritmo eta ordutegiak.

OHIKO BEKA SISTEMAZ GAIN
Iraupen luzeko langabetuek doan.
Informatu euskaltegian

MATRIKULA EPEA: Irailaren 1etik 18ra
Goizez (9.30-13.30), arratsaldean (16.00-18.30)

OÑATIARRAK MUNDUAN



eta MUNDUA OÑATIN



Izena: Oihana Zubia
Adina: 42 urte
Norvegia



Izena: Suleiman Muhammed
Adina: 25 urte
Pakistandarra

Alemanian lau urte egin ondoren, Munichen ezkondu eta Oslora joan zen Oihana 2000. urtean. Bertan bizi da Trond senarra eta hiru semeekin: Mikel Kristian, Daniel Xabier eta Martin Aitor.

Mundu guztiko hegazkin eta aireportuetarako teknologia aurreratua saltzen duen Indra Navia enpresan egiten du lan, *controller* gisa. Norvegiako hiririk populatuena (600.000 biztanle) da Oslo, baina ezohiko hiriburua omen da, laku eta baso zoragarri inguratuta. Ez omen da arraroa etxe inguruan oreinak eta azeriren bat ikustea.

Munduko herrialderik aberatsenetakoa da Norvegia eta gizarte zerbitzuetan ere oso aurreratua. Horren adibide, azaldu digu Oihanak, gurasoek aukera dutela urtebete hartzeko jaioberriarekin etxean egoteko, eta gainera soldatarekin.

Negua luzea eta hotza izaten da, baina erraz moldatu omen zen Oihana. "Artilezko erropak jatzten ditugu barrutik, eta oinetakoen azpian granpoiak erabiltzen ditugu izotzetan ez labaintzeko. Etxean euskaraz egiten die semeei, eta Oñatira etortzen denean pena hartzen du bertako euskaldun askok gazteleraz egiten dutela ikustean. "Ez gara konturatzen euskaria zaindu bihar dan altxorra dala, eta horretarako egunero erabili bihar dala". Turistikoki leku ikusgarriak ditu Norvegiak, eta tarteak, etxekoen eta lagunen bisita jasotzen du.

Pakistango erdi inguruan, Indiarekin mugakide den Punjab probintziako herrirka batean jaioa, orain dela lau hilabete iritsi zen Suleiman Oñatira. Aurretik urte eta erdi egin zuen Azkoitian. Zuzenean etorri zen Pakistandik Euskal Herrira, lan eta bizimodu hobe baten bila, gurasoak eta lau anai-arreba sorterrian utzita. Bera da gazteena.

Kharian hiriburutik gertu, ehun bat etxebizitza dituen herri txiki batekoa da Suleiman, eta han oso zaila omen da bizimodua aurrera ateratzea. "Ez daukagu argindarrik, lanik ere ez, eta gainera, hustelkeria da nagusi gobernuko kideen artean". Horri terrorismoaren arazoa gehitu behar zaio. Afganistandik sartzen diren talibanen beldur bizi dira.

Oñatin oso gustura dago. Helduentzako eskolan ari da gaztelera ikasten, eta 'Auzoko' programan ere badihardu, euskara ikasten, "poliki poliki" dio berak.

Oraingoz gizarte laguntzei esker bizi da (605 euro jasotzen ditu hilero) eta Oñatiko elikagaien bankutik ere jasotzen du laguntza, astean behin.

Lan bat aurkitu (sukaldaritza gustatzen zaio), familia bat osatu eta Oñatin bizitzeko gelditu nahiko lukeela dio. Oso gustura omen dago Oñatin eta oñatiarrekin. San Martin, Usako edota Arantzazu asko gustatzen zaizkio. Ostiralero Bergarako meskitara joaten da otoitz egitera.



MAPFRE

Oñati

Parla-kalea, 5
20600 Oñati

Tel.: 943 78 12 65
Faxa: 943 78 07 85

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@telefonos.es

IKASTAROAK*

- Amatasunera gertakuntza
- Erditze ostekoa
- Haurrendako masajea



* Alumnorik ez dagoen (baita Alumnorik ere) Tafelak martitzia bainan. Informazioa zentzuz.

Zure osasunak arduratzen gaitu

ZERBITZUAK

- Fisioterapia eta errehabilitazioa
Lesio arruntak, kirol lesioak, istripuak...
- Uroginekologia
Gernu galerak, erredukazioak, inkontinentziak...
- Kirol eta osasun zerbitzua
Entrenamendu pertsonalizatua, GAH, Pilates...
- Indiva ProRecovery zerbitzua
Azken teknologia berritzailea tendolen, muskuluen eta artikulazioen errehabilitazioan. Zerbitzu hau eskaintzen duen herriko zentro bakarra!



San Lorentzo 54, behea
Tel.: 943 53 32 99
Mug.: 652 71 21 23
email: eratu@euskalnet.net
www.eratufisioterapia.com

 Eratu Fisioterapia Zentroa



ERREHABILITAZIO ETA FISIOTERAPIA ZENTROA



ARGITARATZAILEA: Oñatiko Udala
ZUZENDARIA: Iñigo Arregi
PUBLIZITATEA: Aratz Losada
DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Aratz Losada

KOLABORATZAILEAK: Jerardo Elortza
eta Udal Euskaltegia
INPRIMATEGIA: Gertu
Tirada: 5.500 ale
Lege gordailua: SS-357/91

Posta-e: kontzejupetik@onati.eus
Publizitatea: publi@onati.eus
Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

GUTUNAK

Azaleko argazkia: Udal Artxiboa / Arzuaga funtsa

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.: 943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Inkiszio berria

Félix Leturia Ibarrondo, antropologoa

Erdi Aroaren Udazkena liburuan Johan Huizingak esaten du erlijioari egiten zaizkion eraso eta kritika sistematikoen atzean jarrera erlijioso sakona dagoela.

Eta Oñatiko Korpus prozesioa, hain justu ere, talaia ezin hobea da profano/sakratu kategoria analitikoaren ahultasunaz jabetu eta, itxura guztien arabera liturgikoa den ekitaldi batean arlo biek bat egiten dutela ikusteko; izan ere, prozesioa makina bat zigor, debeku eta gatazken lekuko izan da bizi izan duen historia eta agertze aldakorrean.

XVIII. mendean, esaterako, saiakera batzuen ondoren, Oñatiko Kondeak lortu zuen Propioak zeritzon dantzarietako udal finantzaketa ezabatzea, argudiatuz prozesioaren antolaketak izugarritzko protagonismoa ematen ziela zinegotziei. Maniobra hura Kondearen interes feudalen aurkakoa bihurtu zen hobeto aztertzea merezi duten arrazoiak tarteko.

Orduko Calahorrako apezpikua ere saiatu zen prozesioan, intemporalitate une horietan, irteten ziren santuen irudi bizi edo pertsonifikatuak kentzen, baina ez zuen lortu, Apostolutzaren Kofradiarekin izan zuen eta honek ira-

bazi zizkion auzien ondorioz.

Gremioetako kofradiek ere gaur egungo sindikatuen aurrekari eta aitzindariak, zeintzuek prozesioan parte hartzen zuten gizartean zuten garrantzia ikusarazteko, ez zuten amore eman azaleko ospakizunen aurka Ilustrazioaren merkantilismoak ekarri zuen korrontearen aurrean, nahiz eta honek desamortizazio gogorrak ezarri.

Bizirik dirauten erritualak, izateko era bakarra erakutsi edo formula estatiko eta fosilizatuak gordetzetik urrun, jarraitutasunaren gidoiak dira soziabilitate espazioetan. Eta oraingoa bezalako mundu multinatural batean, (gaur egun derrigorrez bete behar ez dena, esan gura dut), momentuko sentsibilitateak asetzeko gaitasun estetikoak dute, kasu honek bezalaxe.

Jaietan jai egin nahi dugu

Garazi Santa Cruz Agirre, Oñatiko Asanblada Feministaren izenean

Kalean nahiz parranda giroan kontuz ibiltzeko esango digute, etxera bakarrik ez joateko, norbaitek gu erasotzea proboka dezaken motzegia den gona hori ez eramateko ... Gure etxeetan ere emakumeok izango gara beste guztiak kalean dotore eta gogotsu egoteko lan egiten ariko garen-

nak; familiarteko bazkari horiek ez baitira bakarrik egiten, ezta garbigailuak bakarrik ibiltzen ere. Aurten ere emakumeok jaietan ondo pasatzeko eta parte hartzeko daukagun eskubidea aldarrikatzera gatoz.

Bada garaia herriko jaien ereduaren inguruan hausnartzen hasteko. Zenbateko da gizonezkoek duten protagonismoa jaietako ekintzetan? Zenbatekoa emakumezkoena? Eszenatikian, sokamuturrean, pilota partidutan, tanborradan, gaupasetan...

Gainera jaietan "dena libre" denaren aitzakiapen eraso sexistak etengabe ematen dira: begiradak, ukipenak, irainak, gutxiespenak ... Hauen aurrean gure erantzuna tinkoa izango da, erasoekiko konplizitateak ezin du lekurik izan eta guztion inplikazioa ezinbestekoa da. Emakumeok dantzatu, lurretik bueltaka ibili, biluztu edo ez egin nahi dugu. Jai egin nahi dugu, epaituak izan gabe eta inork gu erasotu gabe!

Jaiak herritar guztiontzako direlako, guk ere ondo pasatu nahi dugulako eta kaleak, gauak, arratsaldeak... gureak ere badirelako guztioi dei egiten dizuegu irailaren 26an gauean egingo den kazeroladan parte hartzera. Nik erabaki, guk gozatu! Gora borroka feminista!

**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarteen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

**PINTURAS
URBIA
MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

> OHARRAK

‘Dispersioaren liburuxka’ irailaren 5ean banatuko dute Atzeko Kaleko jaietan

Oñatiko SARE taldeko kideek ‘Dispersioaren liburuxka’ banatuko dute irailaren 5ean, Atzeko Kaleko jaietako garagardo das-taketarekin batera, eta baita Oñatiko Herri Egunean ere, goi-zean zehar.

Dispersioak euskal presoen-tzat eta hauen ingurukoentzat suposatzen duen eskubide urra-keta ezagutarazi nahi dute libu-ruska honen bitartez. Castillo Suarez, Iñaki Lasagabaster, Jule Goikoetxea eta Igor Elortzaren testuekin, dispersioaren ikuspegi ezberdinak erakusten ditu.

Liburuxka honen 500.000 ale zabaldu nahi ditu Sarek, errealitate gordin honen berri munduan zabaltzeko, dagoeneko 25 urtez luzatu den dispersioaren egunerokoa erakusteko, eta, batez ere, pertsona hauen giza eskubideak errespetatuak izan dai-tezen aldarrikatzeko. Hizkuntza ezberdinetan eskura daiteke liburuxka, eta baita for-matu digitaletan ere: www.stopdispersioa.eus atarian.



Uztailaren 31n Arantzazun banatu zuten liburuxka

> AZKEN ORDUKOAK

Hiru sari ekarri ditu Ganbara Abesbatzak Arezzo-tik

Aitor Biainek zuzentzen duen Ganbara Abesbatzak hiru sari ekarri ditu Italiako Guido de Arezzon jokatu den nazioar-teko 63. polifonia lehiaketatik. Oñatia-rrek bigarren saria eskuratu dute Ahots Mistotan eta Musika Garaikidean, eta Aitor Biainek zuzendari onenaren saria jaso du. Gainera, puntuaziorik altuena jaso zuen Ganbarak Errenazimenduko musikan.



📷 HILEKO IRUDIA

Argazkia: Santi Mendiola



Haurren egunak herriko kaleak dantzari gaztez beteko ditu irailean.

NAFARROA ERREKONKISTATU EDO IRABAZI?

Euskaldunok poztasun handiarekin ikusi dugu Nafarroan eman den aldaketa azken hauteskundeen ostean.

Urte pilla baten ondoren, lortu da bai Iruñeako udaletxean eta bai Nafarroako Foru Erkidegoan gobernu aldaketa bat, gobernu ireki eta zabalago bat, nire ustez, eta euskaldunon egoera eta desioari seguru asko beste erantzun bat emango dio-na.

UPNko gobernuak, nire ikuspuntutik, oso gaizki edo eskas egin ditu bera lanak,

Jose Luis
Madinagoitia



nafar askoren desioak guztiz baztertuz, euskara guztiz aldameneratuta utzita, bai ikastolekin eraman duen politikarekin, eta bai irrati eta telebistarekin. Kudeaketa eskas horrek eta inguruan izan duen ustelkeriak seguru asko apur bqt lagundu due-la aldaketa hau lortzen.

Baina orain, bi gobernuak gestiona-tzea lortu ondoren, zer?

Nafarroako gizartea ez da guztiz eus-kalduna, beste herrialdeetan bezala, oso zatituta dago eta nire iritzi apalean han-

ka-sartze handia izango litzateke orain arte besteek egin duten antzera, aurkako politika radikal bat eramatea. Nire ustez Nafarroako gizartea irabazi egin behar da, bai hizkuntza, hezkuntza, komunikazio eta beste hainbeste politika zuzenbidean jarrita eta pausoka-pausoka, radikaliza-zio barik aurrera bidea eginez.

Konfiantza handia dut Uxue Barkos eta Joseba Asironek eta euren talde berriek ondo gestionatuko dutela sasoi berri hau. Eragozpenak eta trabak izango dituzte, urte askotan gobernuan izan direnak oso minduta daudelako, baina denon lagun-tza eta ahaleginarekin lortuko dugun esperantza eta desioa dut.

Horrela izan dadila.



EDUARDO GALEANO

Joan den apirilean, 74 urterekin, hil zitzaigun Uruguako idazle haundi hau. Ameriketako ezker intelektuala, kazetaria, historiagilea, marrazkilaria, tertuliano hitzun aparta bezain sakona. Gaztetan, bere Uruguaitik Argentinara, eta hemendik 1976ko Estatu Kolpe Militar odoltsuaren hasieran Barzelonara ospa egin behar izan zuen. "Ez nuen nahi Uruguaien preso ego-terik ezta ere Argentinan militarren sarras-kan hiltzen uzterik" zioen.

Eta eskerrak!! Videla generalak eta bere menpeko basatiek hil bazuten, munduko irakurle eta entzule guztiok ez genuen behin ere bere liburu zoragarri eta harrigarriez jakiteko eta goxatzeko aukerarik izango.

Kristo aurretik hasita, Erdi Aro eta bereziki Cristobal Colon-en garaietatik gaur arte zulo beltz eta oso sakonean zeuden eta oraindik dauden indioei, emakumeei eta munduko gertaera ugariri buruzko bene-tako historia errealearen kontakizun labur-rak, gogorak, latzak, alaiak, sinestezinak,

Bittor
Madina



eredugarriak, hunkigarriak, entzungabeko-ak eta ofizialtasun mundutik baztertuak utzi dizkigu betirako gure Galeanok.

Bere lan eder batzuk aipatuko ditut. Oraindik euskeratu gabeko liburuak: 'Memoria del fuego' trilogia, 'El libro de los abrazos', 'Amores', eta 'Los hijos de los días'. Joan den maiatzean, hil ondoren, 'Mujeres' argitaratu diote. Euskeratuak bi dira: 'Hitz ibiltariak' eta 'Ispiluak'.

Idatzitakoaren artean, hona hemen bere obra zabaleko hiru kontakizuntxo adieraz-garri.

1) *Hamaseigarren mendearen hasieran gertatua. Eguberrien ondoren, Santo Domin-goko esklabo beltzak matxinatu dira Cris-tobal Colonen semea nagusi den azukre errota haundi batean.*

Jainko Goi Arduraren eta Santiago Apos-toluaren garaipenaren ostean, bide bazterrek urkatutako beltzez beteta daude.

2) Miloi eta erdi gizon galdu zituen Fran-tziak Lehen Mundu Gerran (1914- 1918). Laurehun mila izenik gabeko hilotz. Horre-gatik, Soldadu Ezezagunari hilobi bat erai-kitzea erabaki zuen Gobernuak. Verdun-go guduan hildako gorpu bat zortez hautatu zuten. Gorpua ikustean, baten bat ohartu zen **soldadu beltza** zela, Senegalgo kolonia frantseseko batailoiren batekoa.

Garaiz zuzendu zuten akatsa. Beste hildako izengabe bat, **baina azal zurikoa** bera, lur-peratu zuten "Garaipen Arku-aren" pean (*Arc de Triompe* famatua) 1920ko azaroaren 11n. Aberriaren banderak bilduta, hitzaldi, ohore militarrek, koroak eta lore eskaintzak jaso zituen eta aldiro jasotzen ditu.

3) 2001. urtean, Italian futbol partidua Treviso eta Genova-ren artean. Treviso taldeko Akeem Omolade jokalaria, Afri-kako Nigerian jaioak, makina bat txistu, orroe, tximino keinu eta abesti arrazistak jasaten zituen igandero. Baina partidu horretan isiltasuna nagusitu zen hasiera-tik. **Trevisoko beste hamar jokalariaik aurpegiak beltzez margotuta zelairatu ziren partidua jokatzera.**

KOLABORAZIOA

Emakumeen mundu martxa



> Urriaren 2an Bergaratik igaroko da. Oñatin ere hainbat ekimen antolatuko ditu Feminista Sareak eta parte hartzeko deia luzatzen die herritarrei

----- www.emakumeenmundumartxa.eus -----

Martxoaren 6an Kurdistandik abiatu zen IV. Emakumeen Mundu Martxa, eta urriaren 17an amaituko da Coimbran. Tartean Euskal Herria zeharkatuko du eta Bergaran egingo du geldialdia urriaren 2an.

Bergaran bertan hainbat ekitaldi antolatuko dira karabana feministari ongietorria emateko, baina eskualdeko gainerako herrietan ere Emakumeen Mundu Martxari atxikimendua adierazteko hainbat ekimen antolatuko ditugu irailean zehar. Oñatiko Feminista Sareak (Gazte Feministak eta Andraitx) adibidez, informazio panelak eta material salmenta postuak jarriko ditugu datorren asteburuan (irailak 4-6) Atzeko Kaleko jaietan, eta irailaren 20an ospatuko den Argia asteariaren aldeko egunean. Mundu martxari buruzko informazioa emateaz gain, kamisetak (10€), poltsak (5€) eta pinak (1€) salduko ditugu.

Autokarabana bat ere prestatuko dugu photocall-a egiteko eta, modu horretan, nahi duten herritar guztiek Mundu Martxarekin bat egin dezaten.

IV. MUNDU MARTXA

Quebec-eko emakume mugimenduek 1995ean egin zuten Ogiaren eta Larrosen Martxan du jatorria Emakumeen Mundu Martxak. Ekimen hark izan zuen arrakasta ikusita, bost urtean behin mundu mailako ekimen bat antolatzea erabaki zuten mundu osoko feministek, politika neoliberal basatien biktima nagusiak emakumeak direla salatzeke, eta eredu kapi-



Bailarako talde feministak ari dira antolatzen Mundu Martxari ongietorria egiteko ekitaldiak.

talista-patriarkalaren kontrako alternatibak eraikitzeke.

‘Gure Gorputzak, Gure Lurraldeak. Martxarekin jarraituko dugu guztiok libre izan arte’ da aurtengo martxaren leloa, eta helburu hauek ditu: Emakumeok bizi ditugun askotariko indarkeria motak salatu eta eragileak identifikatzea; sistema kapitalista, patriarkal, arrazista eta heteronormatiboarentzako alternatibak ikus-

gai egin eta sustatzea; munduari erakustea emakumeok ez dugula amore eman gure gorputzen gainean erabaki ahal izan arte; mugimendu ffeminista indartzea eta zabaltzea.

EREITE SINBOLIKOAK

Aurtengo Mundu Martxaren ikur komuna HAZIAK dira, ellikadura-burujabetasunaren aldeko borroka gogoan. Ildo horretan, ekintza sinboliko bat egitea proposatzen dugu: aldarrikapen eta borroka feministaren ereite sinbolikoak egitea etxean, balkoian, baserrian, parkean, lekuan, herriko lorategian... Tokiko hazi eta landaren bat landatu eta argazki bat atera ondoren info@emakumeenmundumartxa.eus helbidera bidaltzea. www.emakumeenmundumartxa.eus webgunean ikus daitezke adibideak, eta bertan ere eman daitezke atxikimenduak.

Photocall bat egiteko autokarabana bat prestatuko du Oñatiko Feminista Sareak, nahi duten herritar guztiek atxikimendua adierazteko Mundu Martxari



ARRI

Industria Hornidurak
Burdindegia

Goribar auzoa, 10 • Tel.: 943 78 11 18
suministrosarri@hotmail.com

*Oñatin Oñatiarren
zerbitzura!*

NI
moda

MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxe: 943 71 62 40

> Fitness eta gimnasia zerbitzuak Zubikoa Kiroldegian <



Ate irekiak – Hastapen astea

Irailaren 15ean jarriko dira martxan denboraldi berriko fitness eta gimnasia zerbitzuak Zubikoa kiroldegian, ezaugarri, adin eta behar ezberdinak dituzten pertsonentzako aktibitate eskaintza zabalarekin.

Jarduera bakoitza nolakoa den ezaigu eta probatu nahi dutenentzat, ATE IREKIAK edo HASTAPEN ASTEA egingo da irailaren 7tik 14ra (ikusi taula). Aste honetako ekintza guztiak doan dira, baina gomendagarria da izena ematea kiroldegiko harreraren (943716375). Pilatesen kasuan derrigorrezkoa da izena ematea

	IRAILAK 7-ASTELEHENA	IRAILAK 8-ASTEARTEA	IRAILAK 10-OSTEGUNA	IRAILAK 11-OSTIRALA
9:15	Pilates hastapena		Pilates hastapena	
10:15	Fit bike Gimnasia terapeutikoa	Zumba	Zumba Fit bike Aholkularitza presentziala	Gimnasia terapeutikoa
11:15	Aholkularitza presentziala	Fit bike* (*) 13:30etan	Fit bike* (*) 13:30etan	
15:00	Fit bike - Body Tono (1,25 ordu)	Zumba Pilates hastapena	Zumba Pilates hastapena	
17:15	Fit bike	Pilates hastapena	Pilates hastapena	
18:15	Body Balance Aholkularitza presentziala	G.A.H. (*) Fit bike	Body Tono Fit bike G.A.H. (*)	
19:15	Body Tono Fit bike Pilates hastapena	Zumba Step Aholkularitza presentziala	Zumba Step Pilates hastapena	
20:15	Body Balance Running	Zumba Fit bike Pilates hastapena	Zumba Fit bike Pilates hastapena	
	IRAILAK 14-ASTELEHENA	Ate irekietako hastapen saio guztiak DOHAINIK dira Ikasturtearen hasiera: IRAILAK 15		
9:15	Pilates hastapena	(*) G.A.H.: Gimnasia abdominal hipopresiboa Aholkularitza pertsonalizatua Ate irekien asteak dirauen bitartean aholkularitza zerbitzu presentziala egingo da Zubikoa kiroldegian. Hau da, E-goitek enpresako kirol teknikariak kiroldegian egingo dira (ikusi orduategia taulan) herritarren galdera eta zalantzak argitzeko prest. Beraz, zure ezaugarri eta beharretarako egokiena den kirol jarduera aukeratzeko laguntza edo aholkua nahi baduzu, zatoz eta galdetu lasai. Emaillez (egoitekzubikoa@gmail.com) edo telefonoz ere (943716375) jaso ahal da aholkularitza		
10:15	Gimnasia terapeutikoa			
11:15	Aholkularitza presentziala			
15:00	Fit bike - Body Tono (1,25 ordu) Pilates hastapena			
17:15	Pilates hastapena			
18:15	Fit bike Aholkularitza presentziala			
19:15	Body Balance Fit bike Pilates hastapena			
20:15	Body Tono Pilates hastapena Running			

**2015-2016 IKASTURTERAKO
MATEKOLAZO EREA ZABALTU**



Koma Oñati
Olakua nº7
943 71 82 08
Oñati (Gipuzkoa)
www.komalingua.com

3 URTETIK Aurrera
Talde murriztuak: 8 pertsona arte

Arterikatan prestakata: Cambridge (FCE, CAE...) Trinity, Goethe, Delf, Delf...

Animatu eta zure etxeko txikiak ekarri,
Irailaren 21-ean, arratsaldeko 18:00-
tan gure San Lorentzo 4-ko geletan
aspertuko dugun Cooking Day-era!

**IRAKASLE KUALIFIKATUAK, PROFESIONALAK,
TITULUDUNAK, MOTIBATZAILEAK...(JATORRIZKO
IRAKASLE ZEIN BERTAKOAK)**

METODOLOGIA: EGOKITUA, LUDIKOA,
DINAMIKOA, SOZIALA, TEKNOLOGIKOA.

**Business: Beraien kultura
ezagutzean dago
ezberdintasuna!**

since 1999
koma GROUP

SAN MARTIN GUNLEAN GARAJEAK eta
bukatutako eraikinean, azken **ETXEBIZITZAK**

SALGAI
2 eta 3 logela
177.259€ -tik



MOJASORO S.L. Informazioa: **689 420 761** Eraikitzailea: Egaralur www.egaralur.net





Euskal Herriko eta Europako sega txapelketetan parte hartu du Andoni Urrutiak

Abuztuaren 30ean Loiolako santutegiko zelaian jokatu zen Europako sega txapelketan parte hartu zuen Andoni Urrutia 25 urteko oñatiar gazteak. Alemania, Austria, Hego Tirol, Eslovenia eta Euskal Herriko 92 segalari aritu ziren nor baino nor. Andoni 17. sailkatu zen, Euskadiko hamar ordezkarien artean bigarren.

AZKAR ETA TXUKUN

Europako txapelketa eta Euskal Herrikoa desberdinak dira. Europako modalitatean azkartasuna eta txukuntasuna neurtzen dira; hau da, ez da ebakitako belarrik pisatzen, nola eta zenbat denboran ebakitzen den baizik. Lehiakide bakoitzak 100m²-ko saila du mozteko, ahalik eta azkarren. Gero epaileek baloratu egiten dute segalariaren lana, eta penalizazioak egon daitezke, txukuntasun faltagatik; hala bada, saila ebakitzen pasatako denborari penalizazioei dagokiena gehitzen zaio.

Andonik 2 minutu eta 52 segundutan moztu zuen saila, baina penalizazio bat jaso zuen. “Denbora aldetik gustora nago egindako lanarekin. Zoritarrez lekutxo bat geratu zait behar bezala ebaki barik, eta penalizazio horrek postu batzuk galduarazi dizkit; bestela, denboran, Euskadiko lehena izango nintzen” adierazi zigun Andonik.

EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA

Euskal Herriko txapelketan ere parte hartu zuen Andonik



uztailaren 26an, Aian. Bere aurreneko parte-hartzea zen txapelketa ofizial batean, eta nerbioen ondorioz ez zuen entrenamenduetako maila ematerik izan. “Ez nintzen gaizki ibili, baina etxean baino okerrago. Nerbioek lotu ninduten eta ez nuen gorputza behar bezala luzatzen; kolpea goitik jotzen nion...”. Andonik 726,5 kilo ebaki zituen orduerdiko saioan, eta bosgarren sailkatu zen zortzi segalariren artean.

Andoniri beti gustatu izan zaio herri kirolen mundua. Iaz Murgia auzoan antolatu zuten apustuaren ondoren animatu zen txapelketa ofizialetan parte hartzera. Aizkoran eta, tarteka, trontzan ere aritzen da, eta herri kirolen erakustaldietan ere parte hartu ohi du.

ENAITZ IBABE TXAPELDUN

Europako txapelketarekin batera, gazteen artean sega promozionatzeko txapelketa ere jokatu zen Azpeitian, 16 urtetik beherako gazteentzat, eta Enaitz Ibabe oñatiarra izan zen onena 17 lehiakideren artean. Segan egitea gustoko duela esan digu. Etxean aittajuna ikusita hasi zen, eta, tarteka, saioaren bat egiten duela esan digu txapeldun gazteak.



OÑATIKO I. MENDI MARTXA

Irailaren 19an egingo da Oñatiko I. Mendi Martxa, goizeko 7,30etan abiatuta Foruen plazatik. Bi ibilbide egongo dira aukeran: bata luzea, 36 km. eta 1.606 m.-ko desnibel positiborekin; bestea motzagoa, 24 km. eta 1.108m.-ko desnibelarekin. Ibilbidea ondo markatuta egongo da, eta kontrol puntuetan jan-edana egongo da.

Izena kirolprobak.com webgunean edo Aloña tabernan eman daiteke. Aurrez 10€ federatuak eta 12€ federatu gabeak. Egunean bertan, 13€ federatuak eta 15€ federatu gabeak.

PIRINIOTARA IRTEERA.

Posets (3.375m)

Asteburuko irteera antolatu du Aloña Mendik irailaren 12-13rako. Larunbatean goizeko 6etan abiatu eta Erisetik Angel Orús aterpetxera igoko dute, 1000m.-ko desnibel irabaziz. Igandean Posets mendira igoko dute (1200 m.-ko desnibela). Teknikoki ez du zailtasunik, baina altuerak zaildu egiten du bidea. Hilaren 8a biano lehen eman behar da izena. Prezioa, 60€ (ez-bazkideak 70€, langabetuak 50€). Ezinbestekoa da federatuta egotea. Plaza mugatuak.I

SAN MIGELETAKO

TXIRRINDULARI PROBAK

Irailaren 12an Gazte mailako txirrindularientzako LVII. San Migel Saria jokatu da, 10:00etan hasita unibertsitate etorbidean (Oñati-Legazpi-Ormaiztegi-Oñati).

Bestalde, irailaren 19an Afizionatu mailako XXIX. Oñati Saria jokatu da 10:00etan hasita unibertsitatea etorbidean (Oñati-Eskoriatza-Zeraien-Gabiria-Oñati).

Herriko Pilota Txapelketa azken txanpan



33 bikotek parte hartu dute txapelketan

Irailaren 25ean jokatuko dira Finalerdiak eta 30ean Finala. Aurretik bertso-bazkaria egongo da Artola pilotariarekin.

Aloña Mendiko Pilota sailak eta Gaztetxeak antolatu duten herriko pilota txapelketa azken txanpan sartu da. Lauko zortzi multzotan ligaskak jokatu ondoren, multzo bakoitzeko bi onenak sailkatu dira, eta irailaren 1etik aurrera beraien arteko kanporaketak jokatuko dituzte. Finalerdiak hilaren 25ean jokatuko dira, eta finala 30ean, herriko jaien barruan. Finalaren aurretik bertso-bazkaria egongo da, eta, seguruenez, Iñaki Artola Asegarceko pilotari profesionala eta bertsozalea egongo da bertan. Giro bikaina egongo da. Gainera, finalerdietan eta finalean apustuak egiteko aukera ere egongo da.

Ekainean hasi zen txapelketan 33 bikotek parte hartu dute, eta ikusle ugari bildu da partiduak ikustera. Antolatzaileak gustura daude.

Udako izen bereziak kirolean

IGERIKETA



Dominarik ez baina marka onak Espainiako txapelketan

Finalean sartzerik lortu ez bazuten ere lan oso txukuna egin zuten Nerea Diaz eta Eric Ugarte Aloña Mendiko igerilariek Bartzelonan jokatu ziren absoluto mailako estatu mailako txapelketetan. Nerea hiru probatan lehiatu zen, eta bitan **50Libre** (28:75) eta **200Bizkar** (2:31:20) marka pertsonalak egin zituen; **100Bizkarean** (1:10:51) bere markaren azpitik geratu zen. Bere bigarren parte hartzea zuen Espainiako txapelketan. Eric-entzat lehen esperientzia izan da. Bi probatan parte hartu zuen eta bietan hobetu zituen bere markak: **50Libre** (25:20) eta **100Libre** (55:73). Azpimarratzekoa da, gainera, ia beste ordezkari bat ere

ULTRA TRAIL



Iokin Garai Euskal Herriko ultra trail txapelduna

izan zuela Aloña Mendik txapelketan, Ainhoa Redin hamarren bategatik geratu baitzen kanpoan.

Bestalde Iokin Garai Kulum Sport taldeko korrikalariak Goierriko G2Haundiak lasterketa irabazita (88 km. eta + 6.000 m.) Euskal Herriko Ultra Trail txapelketa irabazi zuen uztailaren 12an. probako errekorra ere ezarritz gainera: 10:13:50.

Danel Gereta 18 urteko biker oñatiarrak denboraldi bikaina egin du Euskadiko BTT zirkuitoan, eta horri esker selekzioa ordezkatu zuen Espainiako txapelketan. Ez zuen bere onena eman ahal izan arazo mekanikoen ondorioz eta 42. sailkatu zen.

MENDI BIZIKLETA



Danel Geretak Euskadi ordezkatu du Espainiako BTT txapelketan

“ ALFREDO IGLESIAS | Oñatiko Yoga Eskola sortu zuen duela 25 urte

“Nork bere burua ezagutzea da Yogaren funtsa”

25 urte betetzen ditu aurten Sanatana Dharma Oñatiko Yoga Eskolak. Alfredo Iglesias mediku eibartarrak jarri zuen abian 1990ean. Berarekin hitz egin dugu hasierako urte haietaz, eta yogari buruz oro har. Gaur egun, 16 irakasle eta urtean 90 bat ikasle ditu Oñatiko Yoga Eskolak. Irailean hastapen ikastaroa antolatuko du hasiberrientzat.

Nolatan erabaki zenuen Oñatin yoga taldea sortzea? Ni orain dela 40 bat urte hasi nintzen yoga praktikatzen Sanatana Dharma eskolaren sortzaile Manuel Paz-ekin. Gero, Eibarren hasi nintzen eskolak ematen, eta duela 25 urte, ez dakit nola, Oñatira hurbildu nintzen. Hitzaldi bat antolatu nuen (“Zer da yoga?”) eta lau pertsona etorri ziren, eta lau horiekin hasi nintzen eskolak ematen, Sor Sabina zenak Milagrosa ikastetxean utzitako gela batean.

Poliki poliki jende gehiago etortzen hasi zen eta lokal bat alokatu nuen San Anton kalean. Hau ere txiki geratu zenez, Patrua Kaleko pisu batera joan ginen. Gero, ikasle batzuk irakasle izateko prestatu ziren, eta hortik aurrera beraien esku utzi nuen Oñatiko eskola.

Gaur egun 16 irakasle eta urtean 90 bat ikasle ditu Oñatiko Yoga eskolak. Zer sentitzen duzu?

Poz handia, egia esan, nire ikasle edo jarraitzaile baino gehiago, nire lagunak direlako. Tarteka eskolak edo hitzaldiak ematera gonbidatzen naute, eta asko pozten nau.

Zer da yoga? Ze onura ditu? Nori gomendatzen diozu? Sanatana Dharma eskolak ahalegin berezia egiten du yogari buruz modu logiko eta ulergarrian hitz egiteko, alderdi esoterikoak alboratuz, eta uste dut lortu dugula.

Neri, pertsonalki, bizitzari zentzu bat ematen lagundu dit; ez eguneroko zentzua (familia, lana...), baizik eta sakonagoa. Yogak laguntzen digu geure gorputza eta burua hobeto ezagutzen, eta bien arteko oreka edo armonia lortzen. Eta horrek onura asko ditu: osasun fisikoa, emozioen oreka, konzentrazio mentala, erlaxazio sakona, nortasunaren garapena...

Yogako teknikak (posturak, arnasketa eta erlaxazio ariketak) pertsona bakoitzaren ezaugarrietara moldatzen dira. Beraz, beren bizitza hobetu nahi duten pertsona guztientzat da gomendagarria yoga, inolako muga barik.

Alde fisikoa eta espirituala ditu yogak. Biek batera joan behar al dute?

Batzuei alderdi fisikoa bakarrik interesatzen zaie, baina, normalean, denborarekin, meditazio teknikak ezagutu eta sakontzeko jakinmina sortzen da. Horretarako, bizitzako beste arlo batzuetan bezala, konstantzia behar da, yoga praktikatzen jarraitu.

Aurten lehen aldiz Munduko Yoga Eguna ospatu da.

Bai, yogan dauden familia nagusiek bat egin dute eta ekainaren 21ean ospatu zen UNESCOk proposatuta, eta orain gizateriaren ondasun inmaterial bezala konsideratzeko prozesuan daude.

“ Yogako teknikak pertsona bakoitzaren ezaugarrietara moldatzen dira; beraz, beren bizitza hobetu nahi duten pertsona guztientzat da gomendagarria

Alfredo Iglesias, Sanatana Dharma Yoga Eskolaren sortzaile Manuel Paz maisuaren argazkiaren ondoan

YOGA HASTAPEN IKASTAROA

Irailaren 14tik 17ra eta 21etik 24ra
Ordutegia: 19:30 - 21:00. Informazioa eta izen-ematea:
610953794 / yogaonati@gmail.com

Juan Antonio Unzurrunzagaren ARGAZKI ERAKUSKETA

Kultur etxean ikusgai, irailaren 7tik 19ra

Oñatiarra da Juan Antonio, aspalditik Bergaran bizi bada ere. Argazkizale amorratua. Mutikotan hasi zen argazkiak ateratzen, Loyola txokolatearen lau enbortorio eta bilgarriren truke oparitzen zuten kamera txiki batekin.

Gero, 21 urterekin, Bergarara joan zen bizitzera, eta han hasi zen argazkilaritza munduan benetan murgiltzen, Pol-Pol Mendizale Taldearen bitartez.

Sekula ez du argazki profesional bezala lan egin, baina berrogei urte hauetan zehar beti jarraitu du argazkiak ateratzen eta argazkigintzaz ikasten. Bergarako Arizondo argazkilari elkarteko burua da egun, eta Gipuzkoako Argazkilarien Elkarteko kide ere bai.

Hainbat erakuska egin izan ditu, bakarka nahiz taldeka, eta sariak ere ugari irabazi ditu, hala nola: Gipuzkoa Saria (hainbat aldiz), Bilboko Nazioarteko lehiaketa, Gasteizko San Prudentzio Saria, Maspalomas-eko sari nazionala, Kirolgi eta Kemen sariak, eta hainbat herritakoak ere bai (Bergara, Eibar, Elorrio, Zaldibar...).

'NIRE IBILBIDEA'

'Nire ibilbidea' du izenburua Unzurrunzagaren argazki erakusketak. Hain zuzen ere, bere ibilbidearen erakusgarri diren 45 bat argazki eskegiko ditu Oñatiko kultur etxean. Denetarik egongo da: erretratuak, paisaiak, bodegoiak... Oso bariatua da; askotariko argazkiak daude, eta horrek oso atsegina bihurtzen du erakusketa. Iaz Donostian jarri zuen antzeko erakusketa, eta oso harrera eta kritika onak jaso zituen.



Askotariko argazkiak
eskegiko ditu
Unzurrunzagaren: erretratuak,
paisaiak, bodegoiak...



40 urteko
ibilbidearen
erakusgarri den
argazki sorta ederra
erakutsiko du
oñatiarrak



Sáenz de Oíza eta Laorga arkitektoak omenduko dituzte Arantzazun / Irailak 12

Aurten Arantzazuko basilika berriaren 60. urteurrena betetzen dela kontuan hartuz, eliza eder honen arkitektoak izan ziren Francisco Javier Sáenz de Oíza eta Luis Laorgaren omenezko oroitzapen jardunaldia egingo da Arantzazun irailaren 12an.

Frantziskotarrek, Arantzazuko Adiskideen Elkartek eta Arantzazu Gaur Fundazioak antolatuta, mahai-inguru batekin emango zaio hasiera ekitaldiari goizeko 10.30etan Gandiaga topagunean. Sáenz de Oíza eta Laorgaren senideekin batera, Rafael Moneo arkitektoa izango da bertan.

Gero, 12.30etan, bisita gidatua egingo da basilikan, Arantzazuko azken berritze lanak zuzendu dituen Miguel Angel Alonso arkitektoak gidatuta, eta Xabier Lizaso piano-jolearen emanaldi laburrak lagunduta. Bestalde, egunean zehar Arantzazuko III. Xavier Alvarez de Eulate pintura lehiaketa egingo da.

EGUR-LAN
ARROZTEGIA
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL./ FAXA: 943 78 14 59 - linabaraia@gmail.com
www.egur-lan.es

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
s/nr. berrin 8 - 20560 Oñati
www.sanmiguel.coop

Oñatiri buruzko

JAKINGARRIAK

> Aozarazaren martiritzako margolana

San Migel parrokiak dituen Saltxorretako bat da ondoko argazkian ikusten den margolana. Mikel Aozaraza santuaren irudia ikus daiteke bertan, ezkerreko eskuan martiritzako ezaugarria den palma adarrari eusten, eta aldamenetan fraide domingotarrak jasan behar izan zuen martiritza erakusten duten hamaika iruditxo.

Ezezaguna da margolanaren egilea. Soraluze bizi zen senide baten enkarguz egin zen, eta 1678an ekarri zuten Oñatiko parrokiara, hauxe eskatuz: inoiz beato edo santu izendatuz gero, toki egoki batean jar zezatela margolana. Adituen ustez, esku trebeak izan omen ziren kuadroaren egileak.

1598ko otsailaren 7an jaio zen Mikel Aozaraza, Lekunberri auzoan. Lau anai-arrebatan gazteena, fraide egin zen Gasteizko Domingotarren konbentuan. Oso gazterik Madrilera bidali zuten nagusiek, eta berehala nabarmendu zen ekonomilari trebea zelako, eta langile fina.

Baina konbentuko bizimodu lasaia utzita, sortaldeko mixiotara joatea erabaki zuen, Jesusen Berriena zabaltzera, garai hartan Japonera joatea bere burua heriotz



Ezezaguna da egilea. 1678an ekarri zuten Oñatiko parrokiara, hauxe eskatuz: inoiz beato edo santu izendatzen bazuten Aozaraza, toki egoki bat izan zezala margolanak

arriskuan jartzea zela jakinda ere.

1634an osatu zen mixiolari taldean abiatu zen Filipinetara. Urtebete egin zuen Bataango probintzian lanean, bertako hizkuntza eta japoniera ikasten zuen bitartean, eta 1936ko uztailan Japonian sartzen saiatu ziren ixilean. Handik hilabetera preso hartu zuten Okinawan. Urtebetez giltzapean eduki ostean, 1637an Nagasakira eraman zituzten kaiola batean sartuta, eta hantxe hasi zen berealdiko kalbarioa Aozaraza eta bere lagunentzat. Tortura ikargarriak jasan behar izan zituzten: inbutu batekin leertzeraino urez bete eta gero sabel gainean salto egin; jostorratzak sartu behatzetako azazkaletan; buruz beheara zintzilikatuta eduki burua lurpean zutela...

Azkenean lepoa moztuta hil zuten 1637ko irailaren 29an, eta bere gorpua erre ondoren itsasora jaurti zuten.

1981ean zoriontsu edo beato izendatu zuen Juan Pablo II Aita Santuak Manilan, eta santu mailara jaso izan zen 1987an Erroman. Irailaren 28an ospatzen da Mikel Aozaraza santuaren eguna.

**ARANBURU
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21
Kale Berria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**

S distira
estetika zentrua

- Manikura eta Pedikurak
- Solarluma
- Gorputzeko Tratamenduak
- Aurpegiko Tratamenduak
- Depilazioa

San Lorenzo 4 behea | Tel. 943 78 08 86 | 20560 OÑATI
email/twitter: estetika.distira@gmail.com

HISTORIA TXATALAK

Olabarrietako antxinako bidegorria

> Berriki hasi dira Ugarkalde eta Olabarrieta auzoak lotuko dituen bidegorria eraikitzeko lanak, oinezkoen eta bizikletazaleen segurtasuna areagotzeko asmoz.

Izan ere, gaur egun ez dago espaloirik Oñatitik Legazpi aldera doan GI-2630 errepidean, eta oinezkoek errepide ertzetik ibili behar izaten dute bizi-arriskuan.

Baina Jose Ramon Arrazolak argitaratu duen *Historias de San Cristobal de Olabarrieta en Oñati* liburuan ikus daitekeen moduan, garai batean espaloiz zabal bat zegoen Olabarrietatik Kale Barri-raino, eta santutxuaren aurretik pasatzen zen. Metrobete eskaseko zabalera zuen oinezkoen bideak, eta errepidetik 15 bat zentimetro altxatzen zen. Hareharrizko harlauzaz egina zegoen, hartxintzar eta harez egindako oinarriaren gainean, eta oinezkoak babesteko balio zuen, gurdietatik lehenengo, eta motordun ibilgailuetatik gero. Trafikoa handitzearekin errepidea zabaldu zutenean desagertu zen.



Torreauso

> Jerardo Elortza

Ez da, ba, zabala Torreauso. Zañartu, Goribar, Garibai, eta Santxolopeztegi auzoek inguratzen dute eta Artixa-Oñati errekek mugatzen. Baserri klasiko gutxi ditu, zazpi besterik ez, baina oso leku egokian kokatuak, erreka ondoko ibar lauan, Oñatiko *madurran*, zaharrek esango luketen moduan. Egia da, mendian gora ere hedatzen dela Bakue aldera, Aretxabaletako mugaraino iritsiz, lur-zerrenda estu baten bitartez. Beste toki askotan lez, auzo honek ere izen bat baino gehiago eduki du: **Lazarraga** antzina, eta **Torreauso** edo **San Pedro** gerora, han dagoen ermitarengatik, jakina.

Dena den, Torreausok garrantzia handia izan du gure herriko historian, bertan baitzituzten euren sortetxeak **Lazarraga**, **Araotz** eta **Garibai** familiak, hurrenez hurren, gaur egun **Etxe Haundi**, **Elazarra** eta **Garibaiko Torrea** deitzen diren etxetan. Sendi hauek Lazarraga izeneko leinu eta klan ahaltsua osatu zuten luzaroan, Oñatin nahiz hemendik kanpora, Arrasaten, Bergaran eta batik bat Arabako iparraldean.

Leinu honen aztarnak edonon eta ugari topa daitezke Oñatiko hiriguneko kaleetan zehar.

AUZORIK AUZO

Torreauson zituzten euren sortetxeak Lazarraga, Araotz eta Garibai izeneko familiak

Bi abere, arranoa eta oreina, agertzen dira sarritan herriko hainbat armarritan, hots, Lazarraga-Araotz-Garibai klanaren adierazgarriak: plaza nagusian udaletxe ondoko Lazarragatarren palazioan, San Juan kalean, Kale Zaharrean, Kale Barrian, Agirreko Lope kalean, Patrua kalean eta bereziki Bidaurretako monasterioan ikusiko dituzue halako arrastoak. Azkenera orduko, aipaturiko hegaztia eta ugaztuna **Oñatiko armarririk ofizialean ere sartu ziren**, udaletxea XVIII. mendearen amaieran eraiki zenean.

Alabaina, **San Pedron** ez ziren jauntxoak soilik bizi izan. Handikiok auzotik kalera edota beste herri batzuetara alde egin zutenean, euren bigarren mailako senideak edota maizterrak jarraitu zuten nekazari gisa jatorrizko sortetxetan mende askotan. Eta ez hori bakarrik. Due la 140 bat urte Torreauson **Moiua**, **Gerriko** eta **Cía** konpainiak **puntapaixak** (*puntas de París*, alegia) izeneko iltze modernoak egiteko lantegia eraiki zuten errota zahar baten ursaltoa aprobetxatuz eta herriko ehunka **ultze**gin klasiko langabeziara bidaliz. Ultze-fabrika horren lekukotzat geratzen zaizkigu erreka ertzean langileentzat jaso zituzten **San Pedroko** kalejako etxebizitzak.



ARRIZABALAGA
Aroztegia



PAKITA
Altzariak

Berezaio Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 8
Tel. 943 78 02 21

BUNALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRURA ENPOTATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia

Larriño buzoia, 44
Tel.: 943 78 25 97
Mug.: 688 630 754
OÑATI



Herriko egia: egurrezko labea

AGENDA

09

IRAILA



JAIALDIA

> IRAILAK 20 / Egun osoan 'ARGIA' EGUNA

Oñatin ospatuko da aurten ARGIA aldizkariaren eguna. Euskal astekariaren proiektua kalera atera, harpidedunen babesa eskertzea, harpidetak sustatzea eta euskalzale guztien topaleku izatea dira festa honen helburuak.



Debagoienean harpidedun kopuru handia du Argia kazetak, eta horregatik erabaki dute aurtengo jaialdia Oñatin ospatzea. Egitaraua guztiz zehaztu gabe dago oraindik, baina hainbat ekitaldi izango dira: herri bazkaria, kale animazioa, kontzertuak, bizikleta martxa, ibilaldia, jolas herrikoiak, tailerrak...

BIZI POTTOKA!

> IRAILAK 6 ARANTZAZUKO PARKETXEAN ETA POTTOKALEKUAN

10:30 Bideo-emanaldia: 'Pottoka, mamuten garaiko euskal zaldia' Arantzazuko parketxean.

12:00 Pottokak ikusi, ikutu, zaldiz ibili... Oñatiko Pottokalekun.

Plaza mugatuak. Prezioa: 10€ pertsonako. Familiek (4 kideetik gora) %20ko deskontua. Informazioa: 943782894 (Parketxea).

IKASTAROAK

> IHELDUEN ESKOLA

2015/16 ikasturterako izen-ematea zabalik dago Oñatiko Helduen Eskolan (*Escuela Para Adultos*). Ingelesa (hasiera eta oinarrizko mailak), Gaztelania, Oinarizko informatika, Frantsesa eta DBHko titulua eskura daitezke bertan. Informazioa: 653746910 <http://epaonati.blogspot.com>



LEHIAKETA

> IRAILAK 12 / 10:00-17:00 PINTURA LEHIAKETA

Xavier Alvarez de Eulateren izena daraman III. pintura lehiaketa izango da Arantzazun irailaren 12an. Gandiaga Topagunean egingo da izen-ematea eta zigilatzea, 10:00etatik 12:00etara. Arantzazuko santutegiko edozein zoko, paisaia edo monumentu margotu ahal izango da. Hiru maila bereiztuko dira: Helduak (+16 urte), Gazteak (12-16 urte) eta Haurrak (11 urte arte). 4.150€ banatuko dira saritan helduen mailan. Aurten Sáenz de Oíza eta Laorga arkitektoen omenaldia egingo denez egun berean, 1.500€ko sari berezia egongo da basilikaren arkitektura egokien irudikatzen duenarentzat. Gazte eta haurren mailan pintura-material sortak emango dira saritan.

+ INFO

Eskaneatu ezazu QR kode hau agendako deialdi guztiak ikusi ahal izateko.



**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 78 11 15 • Faxa: 943 71 82 50



KONTZERTUA

Ruper Ordorika

AUZOETAKO JAIAXAK

- > **IRAILAK 4-6**
ATZEKO KALEKO JAIAXAK
- > **IRAILAK 11-12**
ARANTZAZUKO JAIAXAK
- > **IRAILAK 12-14**
ZAÑARTUKO JAIAXAK
- > **IRAILAK 18-20**
SAN MARTINGO JAIAXAK

OHAR ETA DEIALDIAK

> IGERIKETA IKASTARO IZEN-EMATEA

Urritik aurrera kiroldegian emango diren igeriketa ikastaroetan eta ur ekintzetan (*aquagim, aquatrining*) parte hartu nahi dutenek **irailaren 7tik 11ra** (9a salbu) eman behar dute izena kiroldegian, goizez (11:00-13:00) edo arratsaldez (16:00-19:00).

> ESKOLA KIROLERAKO IZEN EMATEA

Irailaren 9tik 18ra zabalduko da 2015/16 ikasturteko Eskola Kirola programarako izen-emate epea. Urriaren 7an hasiko dira astegunetako ekintzak, eta urriaren 17an asteburuak.

> ELIKADURA OSASUNGARRIA - MAKROBIOTIKA

Elikadura makrobiotikoan aditua den Isabel Morenok hiru mailatako ikastaroak eskainiko ditu: 1. Elikatzeko ohitura osasungarriak; 2. Urtaro bakoitzerako elikagai egokiak; 3. Monografikoak (estresa, menopausia, pisu egokia, etxeko erremedio naturalak...). Klaseak larunbatetan izango dira, hilean behin, goizez edo arratsaldez, teoria eta praktika uztartuz. Informazio gehiago: 658719089.

OÑATI GARBIKETAK S.L.

• Komunitate, garaje...garbiketa integrala

• Lurren kristalizatua, dekapatua eta argizari ematea.

Olakua 17 behean, esk. / Tel: 733 733 713
argitagarbi@hotmail.com

ARGITAGARBI

LIBURUTEGIKO BERRIENAK



DVD haurrak
"Big Hero 6"



DVD drama
"Birdman"



DVD haurrak
"El libro de la vida"



DVD zientzia fik.
"Interstellar"



DVD drama
"Calabria"



DVD dokumentala
"Red Army"

MERKATU TXIKIA

- > **Garajea** alokagai edo salgai Olakua 9an prezio ekonomikoan. Interesatuak deitu: 943781936 / 665709332
- > **Garajea** (27m²) alokatzen da Bidebarrieta kalean (DYA azpian). Interesatuak deitu: 695758526.
- > **Babes ofizialeko etxebizitza** salgai San Martinen. Hiru logela, bi komun, trastelekua eta garaje irekiarekin. Deitu: 666340613.
- > **Bi oñatiarrek** etxe bat alokairuan hartu nahi dute Oñatin. Deitu: 685730680.
- > **Garajea** alokatzen da Errekalde auzoko 17an. Deitu 666340613.
- > **2 logelatako** BOE etxebizitza salgai Ugarkalden trastero, garaje eta bista paregabeekin. Interesatuak deitu: 635202213 / 653725464
- > **Babes ofizialeko etxebizitza** salgai San Martinen. 3 logela, 2 komun, trastelekua eta garaje irekiarekin. Deitu: 666340613.
- > **Duplexa** salgai erdialdean. 150m² erabilgarri, 17,50m²ko garaje itxia eta 100m²ko lorategia. Prezioa: 325.000€. Deitu: 609074127 / 649887917.

OÑATI GARBIKETAK S.L.

• Komunitate, garaje...garbiketa integrala

• Lurren kristalizatua, dekapatua eta argizari ematea.

Olakua 17 behean, esk. / Tel: 733 733 713
argitagarbi@hotmail.com

ARGITAGARBI

Olakua 1B, behea

943716713

onati@nomasvello.com
www.nomasvello.com

notavello



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pista

Zer xabillagu/xabiñagu?

Julen: Zer, bahator gurekin Lekeitiora, antzar egunera?

Dany: Baxakuat asmua!

Julen: Ba, "burdixa" Manuk ifiñi bihar xok eta, orduan, hirekin lau izango gaittuk: Manu, Fredy eta gu bixok.

Dany: Ondo xagok. Zer ordutan urtengo xuagu?

Julen: Goizeko 10:00etan Txaketueneko bidekurtzian.

Dany: Konforme, han egongo nauk!

Julen: Ordurako egon hadi, e! Bestela, **hanka egingo dostagu**, heuk ikusi!



Goguan hartzekuak

ASTEKO EGUNEN IZENAK

Astelehen, martizen, eguazten, eguen, egubakoitz, zapatu, domeka mugabagian.

Astelehena, martizena, eguaztena, eguena, egubakoitza, zapatua eta domekia mugatu singularrian. Adb.:

A.- Zer egun da gaur?

B.- Gaur, **astelehena** egun danian!

A.- Bixar, orduan, **martizena**; etzi **eguaztena** eta etzilimo **eguena**. Eta atzo zer egun izan zan?

B.- Atzo, **domekia**.

A.- Hereñegun, orduan, **zapatua** eta hereñeguntxo, **egubakoitza**. Eta noiz urteten dozue, ba, **bakaziñotan**?

B.- **Bixar zortzi!** Eta zuek?

A.- **Gaur hamabost!**

B.- Orduan, **eguen illunkaran** pintxo-poteuan ikusiko gara.

Hutsuniak bete

1. Hau etxat gustaitten; bestiori be ez... Eztau bapebe jaten. Oso da.
2. Eruan egizu poltsia kontuz, bestela fruta dana egingo da-ta.
3. Burrukia egon da bart kalian. Ukabilkada batekin apurtu xau batak bestiari.
4. Bakaziñotan urten bihar dogula-ta, gure umiak dabiltz.
5. Eztozu pakerik emungo gura dozuna egin arte. zara gero!

Aukerak: Aidaatuta / Turtikiñia / Maspilddu / Kiliña / Matraillazurra

Beste modu batera esan

1. Dudan egon
2. Ardura barik ibilli
3. Lotsabagia
4. Hotza igarten hasi (destenplau)
5. Odolbagia

Aukerak: giza-narrua / ezbaiko egon / mengela / hozkilddu / firin-faran ibilli

EUSKERAZ EGOKI

(*) 'Zapatillak jantzi naiz.

Mosua pinttau naiz'

Gaztelaniazko esaldi bihurkari (erreflexibo) batzuk euskeraz NOR erako aditzakin egitten dira. Adibidez:

- Me he vestido: jantzi naiz.
- Me he pintado: pinttau naiz.
- Me he ensuciado: zikinddu naiz.

Baiña argi! Esaldi horreik osagarri zuzena (konplemento direktua) dakoiñian, aditzak NOR-NORK erakua izan bihar dau, nahiz eta gaztelaniaz aurrekuaren egitura bera izan. Adibidez:

- Me he puesto las zapatillas: zapatillak jantzi dittut.
- Me he pintado la cara: mosua pinttau dot.
- Me he ensuciado los pantalones: frakak zikinddu dittut.

Beste modu batera esan

1. Ezbaiko egon
2. Firin-faran ibilli
3. Giza-narrua
4. Hozkilddu
5. Mengela

Hutsuniak bete

1. Kiliña / 2. maspilddu / 3. matraillazurra / 4. aidaatuta / 5. turtikiñia

ERANTZUNAK



Urtain Oñatin

Joxe Manuel Ibar *Urtain* (Zestua, 1943 / Madril, 1992) kirolari famaua izan zan 1960ko eta 1970ko hamarkadetan Euskal Herrixan nahiz hemendik kanpora. **Harri-jasotzaille** modura lehenengo, eta **boxeolari** lez geruago. Polemika ugari be sortu zan bere inguruan, batez be boxeoa-burrukak zirala-eta. Dana dala, ezin ukatu urte batzuetan ur gaiñeko bitsetan ibili zanik, azkenian amaiera latza izan eben arren.

Oñatira be etorri zan 1969ko apirillaren 20xan. Argazki hau Arantzazuko Goiko Benta ostatu-jatetxe aurrian atarata dago, han alkartu ziran lagun eta jarraitzalez inguratuta. Oñatiarrak gehixenak, baiña badira beste herri batzuetakuak be. Batari eta bestiarri itaundu eta gero, ondorengo honein izenak atara ahal izan dittugu, ezkerretik eskumara eta goitik behera:

Goiko illaran zutik: X. X.; Alberto Kortabarria, Olabarrietakua; Jexus Maiztegi, Goiko Bentakua; atzian X.X.; Pedro Maiztegi, txokolateriakua; atzian X. X.; Joxe Txintxurreta, Goixenetxe; Anjel Milikua, Arantzazuko Miliakuanekua; Joxe Manuel Ibar *Urtain*, antioju baltzakin; atzian X. X.; Felix Bolinaga, Maala Etxebarrikua; Bittoriano Guridi, Lekunbarrikua; atzian X. X. eta X. X.; Manolo X., Portugaletekua; atzian X. X.; Migel Maiztegi, Goiko Bentakua; Joxe Olalde, Araotzeko Zumalde baserrikua; X. X.; eta Pablo X., Portugaletekua.

Beheko illaran makurtuta: X. X.; Bixente Txintxurreta, Goixenetxe; Luis Arregi, Irazabal Txikiko laterandarra; Julian Beitia, araoztarra, Goiko Bentan bizi dana; Pedro Ugarte, Olaldekoa; Gregorio Biain, Etxezar; Honorio Agirregabaria, Bergarakua; Jose Luis X., galiziarra, orain kalia bizi dana.

J.E

Fotografixa Jose Luis Plazaolak ataratakua da eta guri Pedro Ugartek eskuratu dosku. Argibidiak, berriz, Pedro berari ez ezik, Migel Maiztegi, Idoia Bolinaga, Arantzazu Olalde eta Joxe Mari Jauregialtzo *Paikori* be zor dostegu. Eskerrik asko danoiri!

Orain



banak importa



zuretako
zuzenean...



BANAK

Zerkaosteta, 3

Tel.: 943 71 10 11

SOFA LEKU - KOLTXOI LEKU

Zigarrola, 1

Tel.: 943 79 15 03



centro hogar MUEBLES

sofa
leku

koltxoi
leku

BANAK

59 urte baino gehiago zugandik gertu, etxeko goxotasuna sortuz